

# “Erizkizundi irukoitza” Sakana erdialdean

JOSÉ LUIS ERDOZIA\*

ERIZKIZUNDI IRUKOITZA-RI BURUZKO ZENBAIT AZALPEN

**E**rizkizundi Irukoitza-ren emaitzak, Gavel-ek jasotakoak izan ezik, 1925etik 1928ra bitartean argitaratu ziren Euskaltzaindiaren ‘Euskera’ aldizkarian, Azkuek 1921ean prestatutako galdetegi ondoriorik. Sortu berria zen Euskaltzaindia erakundeak<sup>1</sup>, hasieratik ekin zion hizkuntzaren batasuna lortzeari, eta horretarako ezinbestekoa zirudien Euskal Herri osoko hizkuntza berezitasunak jasoko zituen galdetegia moldatzea. Eta eginkizun hori Azkueri egokitu zitzaion:

*En la reunión de la Academia de junio de 1921 se pide a Azkue que dé primacía entre sus trabajos a la elaboración del cuestionario que servirá para recoger las variantes fonéticas, morfológicas y léxicas en toda Euskalerría, cuestionario que lleva en su prólogo fecha de 27 de julio de 1921. En las últimas líneas de este prólogo Azkue hace ver que después de conocidas las variantes de las palabras que se utilizan en el país, es cuando la Academia podrá tomar con firmeza decisiones abundantes. Se trataba, pues, de fijar la lengua literaria con base en el conocimiento de los usos lingüísticos (A. M. Echaide, 1984, Erizkizundi Irukoitza, 30)*

Horrela beraz, datuak 1921 eta 1925 bitartean jaso ziren aukeratutako herrietan, garai hartako hizkera jaso beharko luketelarik. Eta hauxe izango da, hain zuzen, nire lan honen helburua, noraino atxekitzen zaizkion, Sakana erdialdeari dagokionez, *EL*-n jasotako emaitzak bertako hizkerari, kontuan izanik ez direla gutxi egungo hiztunen artean garai hura ezagutu dutenak.

\* Ertainetako irakaslea.

<sup>1</sup> 1918an sortu zen ofizialki Euskaltzaindia.

Helburua modu honetan azaldurik, badirudi nolabaiteko desadostasuna egon daitekeela galdetegiko emaitza eta hizkeraren burutzapenen artean, hau da, zalantzan jartzen dela aipatu emaitzen sinesgarritasuna. Eta horrela da, horixe bera pentsatu dut Sakana erdialdeko hizkera(k) aztertu nahian hainbeste datu eskeintzen dituen lan hau miatu dudanean, emaitza horiek ez dutela islatzen egokiro Sakana erdialdeko herrietako hizkeren izaera. Baina ez naiz bakarria izan irudipen hori izaterakoan, Mitxelenak (1991, FLV 58, 183) ere, inkestak ondorio dialektologikoak ateratzeko eskeintzen duen aukera urriaz gain, emaitzak era desegokian argitaru zirela aipatzen du:

*Si el fruto de esta encuesta no ha sido mayor en el terreno de la geografía lingüística, ello se debe sobre todo a dos causas. A la finalidad, en primer lugar, porque el cuestionario se redactó con el objeto de proceder a una especie de plebiscito: para apoyar las decisiones de la Academia en orden a la unificación de la lengua literaria, se pensó que éstas debían fundarse en las variantes apoyadas por una mayoría de localidades consultadas. Entre las preguntas figuran, pues, bastantes de interés dialectológico muy limitado, al paso que muchas otras de primera importancia no fueron incluidas en el cuestionario.*

*En segundo lugar, los datos recogidos sólo se publicaron de forma muy imperfecta, en resúmenes muchas veces cuantitativos acompañados de indicaciones de lugar sumamente vagas.*

A. M. Echaide berak ere, datuen fidagarritasunaz eta interpretazioaz ari delarik ondorengo esaten du:

*En la transcripción que hemos realizado, para su publicación, de los datos del EI, hemos procurado ser lo más fieles que nos ha sido posible a las respuestas que se encuentran en los cuadernillos. Pero, en muchos casos, la transcripción exige una interpretación e incluso una selección, a veces, de los datos. Y no siempre hemos podido quedarnos con la absoluta certeza de haber sido fieles intérpretes de lo que han querido decir los encuestadores —no queremos entrar, naturalmente, en la cuestión de si los informadores han sido fieles al habla de su localidad— en los cuadernillos de encuesta. (1984, 33)*

Eta aurrerago, autore berak Azkueren oharrak ez jarraitzeagatik sortu diren ondorengo arazoak aipatzen ditu:

*Es relativamente frecuente que, cuando la respuesta del informador no coincide con una de las variantes impresas en el cuadernillo, en lugar de escribirlas a mano completas, se complete una de las variantes impresas mediante letras superpuestas o alzadas. Cuando hay letras alzadas, puede entenderse: 1) Que sustituye a la letra impresa (no queda duda de ello si además se tacha la letra impresa); 2) Que se puede utilizar cualquiera de los dos sonidos: el correspondiente a la letra impresa (cuando no está tachada) o a la alzada; 3) Que el sonido correspondiente a la letra alzada debe interponerse entre dos letras impresas. Según esto, si aparece una e alzada entre la l y la a de la palabra neskatile, las interpretaciones pueden ser: 1, neskatile; 2, neskatile o neskatile indistintamente; 3, neskatilea. (1984, 34)*

Bestalde, lan berean, Echaide-k (1984, 38) esaten digu hainbat erantzun ez zaiola behar bezala atxekitzen galdetutakoari, ez eta zenbait inkestagile informatzaileek erantzundakoari.

Sakana erdialdeko herriei dagokienez, Etxarri, Arbizu eta Uharteko emaitzak ia osorik agertzen dira, hots, ia galdera guztiak dute erantzuna, eta berdin gertatzen da Irañetan, Uhartetik ekialdera dagoen hurrengo herriaren kasuan. Lakuntza eta Arruazuko emaitzak (eskuin aldeko zutabeen jasoko ditut) ere ageri dira, baina oso gutxi, 17 lehenaren kasuan eta 13 bigarrenarenean, galdetegian guztira galderak 420tik gora direlarik. Bi herri hauetako emaitzak jasotzen zituzten koadernotxoak eta Etxarriko beste bat galdutakoen (100 baino gehiago, Echaide-k<sup>2</sup> dioskunez) artean ematen dira.

Etxarrin, Nicolás Razkin izan zen inkestatzailea eta 68 urteko Francisco Maiza informatzailea; Arbizun, Policarpo Iraizozek egin zizikion galderak 60 urteko Bernardo Maizari; eta Uhartin, Policarpok, berriro, galdetzaile lanak eta 42 urteko Micaela Bikondok eman zituen erantzunak.

Galdetegiak hiru zati ditu: fonetikoa, morfologikoa eta lexikografikoa. Nik, artikulu honetan hirurak izango ditut kontuan, lehenik emaitzak jasoz, eta ondoren egungo burutzapenak emateaz gain, hizkuntza gertaerak azaltzen saiatuko naizelarik. Eta erreferentzia zuzenak izateko, galdetegiak erabiltzen dituen galderen identifikatzaile berberak erabiliko ditut lehen zutabeen; hurrengotan, esan bezala, Nicolás Razkinek eta Policarpo Iraizozek jasotako emaitzak kurtsibaz jasoko ditut, eta egungo burutzapena parentesi artean. EI-ko burutzapena soilik agertzen denean ontzat ematen dela esan nahi du; parentesi artean eta era normalean agertzen denean, aldiz, EI-n ez dela erantzunik jaso esan nahi du eta horrela erabiltzen dela gaur egun; eta azkenik, EI-ko emaitzak bat baino gehiago badira, horietako bat parentesi artean agertzen bada, ontzat ematen delako izango da. Azalpenak, beharrezkoak direla irizten diodanean, ohartxo bidez burutuko ditut.

## GALDETEGI FONETIKOA

126 galdera dira guztira, galdetu nahi diren gertaera fonetikoak 52 baino ez badira ere.

	EI-ETXARRI (egungoa)	EI-ARBIZU (egungoa)	EI-UHARTE (egungoa)	LAK-ARR
1, 1, A <sup>3</sup>	<i>arriba</i>	<i>arriba</i>	<i>arriba</i>	
1, 1, B	<i>arrebak</i>	<i>arrebak</i>	<i>arrebak</i>	
1, 1, Z	<i>ama</i>	<i>ama</i>	<i>ama</i>	
1, 2, A <sup>4</sup>	<i>eo</i> (o)	<i>eo</i> (o)	<i>eo</i> (o)	

<sup>2</sup> (1984, 42).

<sup>3</sup> *a* + *a* burutzapenaren emaitzak jaso nahi izan dira lehen hiru galderetan, baina ez da kontuan izan aurreko silabako bokalen izaera, hots, goikoa edo itxia den ala ez, honek eragina baitu aipatu burutzapen honetan. Etxarri eta Uharteko hizkeretan aurreko silabako bokal itxiak asimilazioa sortzen du, bai singularrean nola pluralean: *zuma* + *a(k)* > *zume(k)*. Arbizuko hizkeran, aldiz, soilik pluraleko morfema eransterakoan sortzen da bokal asimilazioa: *zuma* + *a(k)* > *zuma*, *zume(k)*.

<sup>4</sup> Bokal arteko *d*-ren burutzapenak jasotzeko egin ziren hau eta hurrengo bi galderak. Lehenak, *edo* juntagailuak, ondorengo bilakabidea du Sakana erdialdean: *edo* > *eo* (bokal arteko hortzetako herskari ahostunaren galera) > *oo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ) > *o* ( $V_2V_2 > V_2$ ). Bigarrenak, *edan*, bilakabide desberdinak ditu: Etxarri, Lizarraga, Unanu eta Lakuntzan *yan* dugu bere burutzapena, bokal arteko hortzetakoaren galeraren ondoren, hasierako *e*-ren itxiera eta ondorengo kontsonantizazioa jasaten dituelarik; Arbizu eta Dorraun *aan*, < ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ) *ean* < *edan*; eta azkenik, Arruazu eta Uhartin *ean* da bere burutzapena, bokal artekoaren galera jasanez. Eta hirugarrenak ere, *edugi*, burutzapen desberdinak ditu: *urái* Etxarrin (*edugi* > *udegi* (metatesia) > *uregi* (d/r txandaketa) > *urei* (bokal arteko belare herskari ahostunaren galera) > *urái* (ei > ai diptongo irekiera); *irúi* Arbizun eta *iruki* Arruazun (*edugi* > *idugi* (asimilazio atzerakaria) > *irugi* (d/r txandaketa) > *irúi* (bokal arteko belare herskari ahostuna-

1, 2, B	<i>yan</i>	<i>ean</i> (aan)	<i>edan</i> (ean)	
1, 2, Z	<i>urai</i>	<i>euki</i> (irui)	<i>idugi</i> (udigi)	<i>udigi</i> (Arr)
1, 3, A <sup>5</sup>	<i>bier</i> (ber, bier)	<i>biar</i> (bier)	<i>biar</i> (ber, bier)	<i>ber</i> (Lak)
1, 3, B	<i>luzie</i>	<i>luzia</i>	<i>luzie</i>	
1, 4, a <sup>6</sup>	<i>foruek</i> , ( <i>fueruek</i> )	( <i>fueruek</i> )	( <i>fueruek</i> )	
1, 4, c	<i>garrafoye</i> (garrafona)	<i>garrafoia</i> (garrafona)	<i>garrafoia</i> (garrafona)	
1, 4, d	<i>Felipe</i> , <i>Pilipe</i>	<i>Felipe</i>	<i>Felipe</i>	
1, 4, e	<i>kaferik</i> (kafeik)	<i>kaferik</i> (kafeik)	<i>kaferik</i> (kafeik)	
1, 5, a <sup>7</sup>	<i>egun</i>	<i>egun</i>	<i>eun</i> (egun)	
1, 5, b	<i>do</i> (doo)	<i>dao</i> (dau)	(dao)	
1, 6, A <sup>8</sup>	<i>jan</i>	<i>jan</i>	<i>jan</i>	
1, 6, B	<i>ddakik</i> (jakin?)			
1, 7 <sup>9</sup>	<i>egiye</i>	<i>egiya</i>	<i>egie</i> (egiye)	
1, 8, A <sup>10</sup>	<i>igortzi</i> , ( <i>iyortzi</i> )	<i>iyortzi</i>	<i>iurtzi</i>	<i>iyurtzi</i> (Lak), <i>idurtzi</i> (Arr)
1, 8, B	<i>iyesi</i>	<i>iyesi</i>	<i>iesi</i>	<i>iddesi</i> (Arr)
1, 8, Z	<i>itxo</i> (itzoo)	<i>itzo</i> (itzoo)	<i>iyen</i> (itzoo)	<i>itzo</i> (Arr)
1, 9, A <sup>11</sup>	<i>il</i> , <i>illa</i> (il, ille)	<i>ill</i> (il)	<i>ill</i> (il)	
1, 9, B	<i>inzale</i>	<i>egille</i> (inzale)	<i>intzale</i> (inzale)	
1, 9, Z, b	<i>neskisa</i> (nexkixe)			

ren galera, Arbizuko kasuan; Arruazun belare herskaria ahoskabe bihurtzen da); Uharteko *idugi* eta Unanuko *idui*, orain arte esandakoarekin uler daitezke.

<sup>5</sup> *E* + *A* burutzapenak dira hau eta hurrengoak. Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartan beti *e* + *a* > *ie* burutzen da, bai hitzaren barruan nola morfema mugetan: *etxe* + *-a* > *etxie*, *luzie*, *semie*, *astier-tie*, *lanien* (lanean)... Arbizu, Dorrau, Unanu eta Arruazun burutzapen hau gauzatzeko, atzetik jarraipena izan behar du, nahikoa delarik kontsonante bat, pluraleko morfemarena kasurako: *luzia*, *semia*, *itx(i)a*, ... baina *luziek*, *semiek*, *itx(i)ek*, *astiertia*, *lanien*...

<sup>6</sup> *F*-ren burutzapenak dira hau eta hurrengo hirurak. Ikusten denez I, 4, b galdera ez dugu jaso, *aferek* hitza galdetzen zen kasu honetan, eta Sakana erdialdean ez da erabiltzen hitz hori. Bestalde, lehenean, diptongodun burutzapena erabiltzen da, *fueruek*, *o* + *-ak* > *uek* ematen baitu gure herriotan (singularrean, aldiz, *e* + *a*-ren kasuan bezala *ua* ematen du Arbizu, Dorrau, Unanu eta Arruazun: *fuerua*, *zulua*...). Bigarrenaren kasuan, *-on*-ez bukatutako mailegu guztien kasuan bezala, mantendu egiten da bukaera hori: *garrafona*, *kamiona*, *balkona*... Eta azkenari dagokionez, bokal arteko dardarkari xamurraren galera jasaten du: *kafeik*. *F/P* txandaketa edo alternantziari erreparatu, garbi ikus daiteke *f*-dun aldaerak direla nagusi Sakana erdialdean.

<sup>7</sup> Ez da, hitz honen kasuan, bokalarteko *G*-ren galera gertatzen. Bai, ordea, hurrengoan, eta bilakabide berbera jarraitzen badute ere, burutzapen desberdinak erabiltzen dira: *dago* > *dao* > *doo* (bokal bikoitza garbi entzun daitekeela) Etxarrin; *dago* > *dao* > *dau* (diptongaketa) Arbizun; eta *dago* > *dao* Sakana erdialdeko gainerako herrietan.

<sup>8</sup> *Hasierako i-* + *bokala*-ren burutzapena jaso nahi izan da galdera hau eta hurrengoaren bitartez. Sakana erdialdean, belare iguzkari ahoskabea, [x], erabiltzen da normalean (*jan*, *jator*, *josi*, *jabe*...), sabaiako iguzkari ahostuna, [j], *hasierako e* + *kontsonante erorkorra* ingurunean gertatzen delarik Etxarri, Ergoiena eta Lakuntzan. Bigarren galdera, pentsatzen dut *jakin* izango dela, ez baitago jasorik beste burutzapenik inguru guztian.

<sup>9</sup> *I* + *a* burutzapena. Sakana erdialdeko herri guztietan *-y-* kontsonante epentetikoa tartekatzen da ingurune honetan, eta honetaz gain, Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartan *-a*-ren asimilazioa ere gertatzen da: *mendiye*, *erriye*, *egiye*... Beste herrietan, gogoratu, oraingoan ere atzetik zerbait behar due-la asimilatzeke: *mendiyal/mendiyek*, *erriyal/erriyek*, *egiyale/egiyek*...

<sup>10</sup> *I* + *G* burutzapenak *iy-* suertatzen dira Sakana erdialde osoan: *iyurtzi*, *iyende*, *zapoziyela* (zapo + igela). *Igo*-ren kasuan, ez da bilakabide berbera, ezen gure herrietan jatorrizko hitza ez da *igo*, *itzego* (Mitxelena, 1996, OEH, IX, 738) baizik, ondorengo delarik bere bilakabidea: *itzego* > *itzeo* (bokal arteko belare herskari ahostunaren galera) > *itzoo* ( $V_1V_2 > V_2V_2$ ). Mitxelenak ere, aipatu lanean, horrela jaso du, bokal bikoitzaz.

<sup>11</sup> *I* + *l* palatalizazioa. Sakana erdialdean sistematikoki palatalizatzen da hitz bukaera ez den guztietan, eta honetaz gain, gogoratu asimilazioa: *ille/il* (hila, ilea), *mutille/mutil*, *makille/makil*, *zille*, *pille/pil*... Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uhartan; *illa/il*, *mutilla/mutil*, *makilla/makil*, *zilla*, *pilla/pil*... Arbizu, Dorrau, Unanu eta Arruazun. Ez ziren jaso I9Za (mutila) eta I9Zc (orkatila) burutzapenak, eta I9Zb-ren kasuan ez zitzaion erreparatu galdetutakoari, ez baita *neskatila* hitza erabiltzen esparru osoan. I9B-ri dagokionez, ez da Sakana erdialdean *-le* atzizki eratorlea erabiltzen, *-zale* baizik.

1, 9, D	<i>zille</i>	<i>zilla</i>	(zille)	
1,10,A,a <sup>12</sup>	<i>bana</i>	(bana)	(bana)	
1,10,A,b	<i>bire</i> (biñe)	(biña)	(biñe)	
1,10,A,d	<i>launa</i> (laune)	(launa)	(laune)	
1,10,A,f	<i>seire</i> (seïne)	(seïña)	(seïne)	
1,10,A,g	<i>zazpiña, zazpire</i> (zazpiñe)	<i>zazpiña</i>	<i>zazpiñe</i>	
1,10,A,j	<i>amarna</i>	(amarna)	(amarna)	
1,10,B	<i>ariñ-ariñ</i> (ariñ-arin)	<i>ariñ-arin</i>	<i>ariñ-arin</i>	
1,11 <sup>13</sup>	<i>ixildu</i> (ixildu)	<i>ixildu</i>	<i>ixildu</i>	
1,12 <sup>14</sup>	<i>zuritxu, (zuittu)</i>	<i>zuritu</i> (zuittu)	<i>zuritu</i> (zuittu)	
1,13 <sup>15</sup>	<i>itsu, itsube</i> (itxube)	<i>itxu</i>	<i>itxu</i>	
1,14,A	<i>balitz</i>	<i>balitz</i>	<i>balitz</i>	
1,14,B	<i>litzeke</i>	<i>litzeke</i>	<i>litzeke</i>	
1,15,A <sup>16</sup>	<i>izan, (izen)</i>	<i>izan</i> (izen)	<i>izen</i>	
1,15,B	<i>gizona bizik</i>	<i>gizona bizirik</i> (biziik)	<i>gizona bizirik</i> (biziik)	
1,15,Z	<i>zorriz</i> (zorris)	<i>zorris</i>	<i>zorris</i>	<i>zorris</i> ( <i>Lak</i> )
1,16,A <sup>17</sup>	<i>(bildur), bildur</i>	<i>bildur</i>	<i>bildur</i>	
1,16,B	<i>(il da), il de, ill da, ill de</i>	<i>ill da</i> (il da)	<i>il de</i> (il da)	
1,17,A	<i>inder, iñyer</i> (indder)	<i>indar</i> (indder)	<i>ingerr</i> (indder)	<i>ingar</i> (indder) ( <i>Lak</i> )
1,17,B	<i>ezin dau</i>	<i>ezin du</i>	<i>ezin du</i>	
1,18,A <sup>18</sup>	<i>besue</i>	<i>besua</i>	<i>besoie</i> (besue)	
1,18,B	<i>nua, (nue)</i>	<i>nua</i>	<i>noaie</i> (noye)	<i>nua</i> (nue) ( <i>Lak</i> )
1,19,A <sup>19</sup>	<i>gaur e bai</i> (gaur ebei)	<i>gaur ere bai</i> ( <i>gaur ee bai</i> )	<i>gaur ee bai</i> ( <i>bei</i> )	
1,19,B	<i>itxea</i> (etxia)	<i>itxea</i> (itxaa)	<i>itxea</i> (itxia)	
1,20,a <sup>20</sup>	<i>txerri</i>	<i>txerri</i>	<i>txerri</i>	
1,20,b	<i>txakur</i>	<i>txakur</i>	<i>txakur</i>	
1,20,c	<i>txuri</i>	<i>txuri</i>	<i>txuri</i>	
1,21,a <sup>21</sup>	<i>talo</i>	(talo)	(talo)	
1,21,b	<i>gutxi</i>	<i>gutxi</i>	<i>gutxi</i>	
1,21,c	<i>txu</i>	<i>txu</i>	(txu)	
1,21,d	<i>txuntxun</i> (ttunttun)	(ttunttun)	(ttunttun)	

<sup>12</sup> *I + n* palatalizazioaz galdetzen da honetan eta hurrengo seietan. Badira sei galdera erantzun gabe (*iruna, bosna, zortzina, bederatzina, amarna, amaikana, amabina, ogeina, euna*). Berritri ere, hitzaren bukaeran ez bada, sistematikoki palatalizatzen da *n* *i*-ren ondoren, eta asimilazio kontua aurrekotasun bezala: *biñe/biña, iruneliruna, amabiñel/amabiña*... Eta hitz bukaerako burutzapena izanez gero, ez da palatalizatzen: *iriñel/iriña* baina *'bi kilo irin', saarmiñel/saarmiña* baina *'lau saarmin'*...

<sup>13</sup> *I + s > ix* suertatzen da normalean, hitz barruan, esparru osoan: *ixildu, bixigu, bixera, bixte*...

<sup>14</sup> Bokal arteko dardarkari xamurraren galera eta *i*-ren ondorengo hortzetako herskari ahoskabearen bustidura suertatzen da esparru osoan: *zuittu/txuittu, muittu, ttut* (ditut), *garbittu*...

<sup>15</sup> *I*-ren ondoren, hortzobietako afrikatu ahoskabea, sabaikaritu egiten da: *itxubel/itxuba, itxesuel/itxesua*...

<sup>16</sup> *I + z* berean mantentzen da Sakana erdialdean, hori bai, asimilazioa falta zaio burutzapen honi Arbizukoan. Hurrengo galderan, partitiboko morfemaren *r*-ren galera falta zaio, eta burutzapen fonetiko honetako azkenean, instrumentalaren morfema *ez* da *-z* Sakana erdialdean, *-s* baizik.

<sup>17</sup> Honetan eta hurrengoan *-ild-* taldearen palatalizazioa landu nahi da, eta gure esparruan ez da palatalizatzen, Etxarriko kasu batean izan ezik, *gildde* (gerezia): *bildu, bildurre/bildurra, zeildu*... Hurrengo biak *-ind-* taldearen ingurukoak dira, eta kasu honetan bai palatalizatzen da hitzaren barruan, baina ez sandhi-etan: *indderra, meinddere, apeinddu, ainddu* (agindu)...

<sup>18</sup> *O + a* burutzapena, honetan eta hurrengoan. *Nuel/niyue* Etxarrin, *nue* Lakuntzan, *niyue* Er-goianen, *nua* (asimilaziorik gabe) Arbizun, eta *noye* Arruazu eta Uharten.

<sup>19</sup> Bokal arteko *r* galdu egiten da esparru osoan, galdera honetan eta hurrengoan ikus daitekeen moduan: *ebei* (ere bai), *etxia* (etxera), *lurria* (lurrera), *goitti bia* (goitik behera)...

<sup>20</sup> Ez da hitz hasieran *x* sabaiko igurzkarari ahoskabea erabiltzen, afrikatua baizik.

<sup>21</sup> Hau eta hurrengo hirurak *tt* sabaiko herskari ahoskabea buruzkoak dira. Oso sarritan ez bada ere, agertzen da hitz hasieran Sakana erdialdean: *ttattar* (jenio txarreko pertsona, lepoko zapia), *tti-ki* (txikigarria, txakur izena), *ttitte* (txittoa), *ttitemeru* (mirua), *ttitere* (ditarea), *ttonttor, ttopor* (txikia eta biribila), *ttuntunero* (musika jotzen duena), *ttutte* (zahatoaren ahoa), *ttutulu* (ganora gabekoa), *ttuttipiko* (uzkuriturik belauinak makurtuta), *ttutuketu* (jagon)...

1,22,A, <sup>22</sup>	<i>otsa</i>	<i>otsa</i>	<i>otsa</i>	
1,22,A,b	(utse)	<i>utsa</i>	<i>utsa</i> (utse)	
1,22,B	<i>aberatsa</i> ( <i>abiatsa</i> )	<i>aberatsa</i> ( <i>abaatsa</i> )	<i>aberatsa</i> ( <i>abiatsa</i> )	
1,23,A <sup>23</sup>	<i>eskube</i>	<i>eskuba</i>	<i>eskube</i>	
1,23,B	<i>eskuben</i>	<i>eskuen</i> ( <i>eskuben</i> )	<i>eskuben</i>	
1,24,a) <sup>24</sup>	<i>ez</i>	<i>ez</i>	<i>ez</i>	
1,24,b)	<i>beres</i>	<i>beres</i>	<i>beres</i>	
1,24,c)	<i>utxes</i> ( <i>utses/udses</i> )	<i>ures</i> ( <i>utses</i> )	<i>ures</i> ( <i>utses</i> )	
1,25 <sup>25</sup>	<i>sellen</i>	( <i>seillen</i> )	<i>malluka</i> *	
1,26 <sup>26</sup>	( <i>ain</i> ) <i>aiñ</i>	( <i>ain</i> ) <i>aiñ</i>	<i>aiñ</i> ( <i>ain</i> )	
1,27,A <sup>27</sup>	<i>aixe</i> ( <i>aixe</i> )	<i>aixa</i>	<i>aixe</i>	
1,27,B	<i>mestru</i> ( <i>meixtru</i> )	<i>maixtru</i> ( <i>meixtru</i> )	( <i>meixtru</i> )	
1,28	<i>aiixa</i> ( <i>aitte</i> )	<i>aitta</i>	<i>aitte</i>	
1,29	<i>gaitza</i> , <i>geitza</i> ( <i>geitze</i> )	<i>gaitza</i> ( <i>geitza</i> )	<i>gaitza</i> ( <i>geitze</i> )	<i>geitza</i> ( <i>Arr</i> )
1,30	<i>aizie</i>	<i>aize</i>	<i>aize</i>	
1,31 <sup>28</sup>	<i>ereinzale</i>	<i>ereintzale</i> ( <i>ereinzale</i> )	<i>ereintzale</i> ( <i>ereinzale</i> )	
1,32,a)	<i>bein</i> , ( <i>bein</i> )	<i>bein</i>	<i>bein</i>	
1,32,b)	<i>beinola</i>			
1,34,A <sup>29</sup>	<i>beitte</i> ( <i>beita</i> )	<i>bedi</i> *	<i>bedi</i> *	
1,34,B	<i>geixu</i> *	<i>leittu</i> *	<i>deittu</i> *	
1,34,Z	<i>ereitxen</i> ( <i>ereitten</i> )	<i>eretten</i> ( <i>ereitten</i> )	<i>ereitten</i>	
1,35	<i>lizar</i> ( <i>lizer</i> )	<i>lizar</i> ( <i>lizer</i> )	<i>lizar</i> ( <i>lizer</i> )	
1,36,a) <sup>30</sup>	( <i>soil</i> )	( <i>soil</i> )	<i>soil</i>	
1,36,b)	( <i>soillik</i> )	( <i>soillik</i> )	( <i>soillik</i> )	
1,37	<i>soñekue</i>	<i>soñeko</i>	<i>soñeko</i>	
1,38	<i>lloixu</i> ( <i>loittu</i> )	<i>loittu</i>	<i>loittu</i>	<i>lottu</i> ( <i>loittu</i> ) ( <i>Lak</i> )
1,39	<i>goizeko</i>	<i>goizeko</i>	<i>goizeko</i>	
1,40,A	<i>laurek</i>	<i>laurek</i>	<i>laurek</i>	
1,40,B <sup>31</sup>	<i>gaubes</i>	<i>gaubes</i>	<i>gauez</i> ( <i>gaubes</i> )	

<sup>22</sup> *TS*-ren burutzapen ugari erabiltzen da Sakana erdialdean. Hala ere, lau galdera daude erantzun gabe (*dinotsut*, *dakartsut*, *deutsut*, *neutsun*), bizkaierako aditz formak.

<sup>23</sup> *U* +*a*-ren burutzapenak. Ondo jasoak daude, *b* kontsonantearen epentesia eta guzti, bigarren galderako Arbizuko lehen emaitza izan ezik. Bestalde, aipatzekoa da Arbizun –*b*- horrek hartzen duen ebakera herskari garbia, Lakuntza eta Arruazun bezala.

<sup>24</sup> Hau eta hurrengo biak *z*-ren burutzapenei dagozkie. Aipatu dut lehenago, instrumentalaren kasuan, –*s* dugula morfema esparru osoan. Bestalde, *ura* ez da kontsonante dardarkariz ebakitzen, hortzobietako afrikatu ahoskabe (*utse/utsa*) zein ahostunetz (Etxarriko zenbait hiztunen kasuan behintzat: *utseludse*) baizik.

<sup>25</sup> *AI* + *l* burutzapenetan, normalean diptongoa itxi eta hortzobietako albokari ahostuna sabaikaritzen da: *seillen*, *meillen*, *Seikafitakomeille* (Etxarriko toponimoa). Harritzekoa da Uharteko emaitza, ez baitu inongo zerikusirik galdetutako hitzarekin (*sail*, *sailean*), bai ordea burutzapenarekin: *mailuka*.

<sup>26</sup> Aurrerago esan dudana moduan *i* + *n* ez da palatalizatzen hitz bukaeran esparru osoan, ez eta bokal itxia diptongoaren bokal erdia denean ere I,32,a)-ren kasuan idus daitekeen bezala.

<sup>27</sup> *I* + *s* > *ix* palatalizazioa sitematikoa da, 13. oharrean esan dudana bezala, nahiz eta bokal itxia diptongoko bokal erdia izan. Horretaz gain asimilazio aurrerakaria Etxarri eta Uhartan. Gauza bera esan behar da hurrengo burutzapenari buruz, *ai* + *t* > *aitte*, asimilazioaren kontua eta guzti.

<sup>28</sup> Gogoratu ez dela –*le* atzizkia erabiltzen Sakana erdialdean. Honen ordez –*zale* (-*tzaille*) erabiltzen da, eta ikusten denez ez da bizkarhobietako igurzkari ahoskabea afrikatzen *n*-ren ondoren: *ereinzale*, *kanzonzillue*...

<sup>29</sup> Ez datoz bat galdera honetako eta hurrengoko erantzunak galdetutakoarekin (*beite*, *geitu*). Hala ere, lehenaren kasuan, galdetutako hitza ‘baita’ bada, hauxe dugu salbuespena, *ez* baita suertatzen hortzetako herskari ahoskabearen palatalizaziorik kasu honetan, bai ordea testuinguru berdineko beste hainbat hitzen kasuan: *leittu*, *ereitten*, *neebeitten* (nere baitan)...

<sup>30</sup> Harritzekoa Uhartekoan soilik agertzea erantzuna eta hemen ere lehen galderan baino ez. *Soil-soille* eta *soil-soillik* asko erabiltzen dira esparru guztian.

<sup>31</sup> *U*-ren ondorengo kontsonante epentetikoa eta instrumentalaren kasu-marka –*s* ditugu burutzapen honetan.

1,41,A <sup>32</sup>	(oik)	(ubek)	(oik)	
1,41,B	<i>gauberdiyen</i>	<i>gauerdi</i> (gauberdi)	<i>gauerdi</i> (gauberdi)	
1,41,Z	<i>gaubero</i>	<i>gaubero</i>	<i>gaubero</i>	
1,41,D <sup>33</sup>	<i>lauraun</i> (lautenaun)	<i>lautan eun</i> (lautenaun)	<i>lauetan eun</i> (lautenaun)	
1,41,E, <sup>34</sup>	<i>auri</i> (auri)	<i>auri</i>	<i>auri</i>	
1,41,E,b	<i>aurrera</i> (aurria)	<i>aurrera</i> (aurria)	<i>aurrera</i> (aurria)	
1,41,E,c	<i>neurri</i> (laurri)	(laurri)	(laurri)	
1,42 <sup>35</sup>	<i>garairik</i> *	<i>guairik</i> *	<i>gauik</i> *	<i>gaubik</i> * (Lak)
1,43,A	<i>gaubon</i>	<i>gaun</i> (gaubon)	<i>gaun</i> (gaubon)	<i>gaubon</i> (Lak)
1,43,B <sup>36</sup>		<i>laurri</i>		
1,44 <sup>37</sup>	<i>neguben</i> *			
1,45 <sup>38</sup>	<i>zuek</i> (ziok)	(zioiek)	(ziok)	
1,46,a)	<i>argiña</i> (argiñe)	<i>argiña</i>	<i>argiña</i> (argiñe)	
1,46,b) <sup>39</sup>	<i>burdiña</i> (burniye)	(burniya)	(burniye)	
1,46,c)	<i>ozpiñe</i>	<i>ozpiña</i>	<i>ozpiña</i> (ozpiñe)	
1,47,a) <sup>40</sup>	(duugubie)	(diubie)	<i>digube</i>	<i>digube</i> (Arr)
1,47,b) <sup>41</sup>	<i>eskubetan</i> (eskuten)	<i>eskutan</i> (eskuten)	<i>eskutan</i> (eskuten)	
1,48,a)	<i>ibeye</i>	(ubeldia)	(ubeldie)	
1,48,b)	<i>errayak</i> (erreyek)	<i>erraiyak</i> (erreyek)	(erreyek)	
1,49	<i>geñera</i> (geñaa)	<i>gañera</i> (geñaa)	<i>gañera</i> (geñaa)	
1,50,a)	<i>beye</i>	<i>beya</i>	<i>beya</i> (beye)	
1,50,b) <sup>42</sup>	<i>ijo</i>	<i>io</i> (iyo)	<i>ijo</i>	
1,51 <sup>43</sup>	(loye)*	<i>loya</i>	<i>loye</i>	
1,52,b) <sup>44</sup>	<i>ones</i> (oñes)	<i>oñez</i> (oñes)	<i>oñez</i> (oñes)	

<sup>32</sup> Lehen graduko erakuslearen pluraleko burutzapena dugu hauxe. Etxarrin eta Uharten burutzapen berdina erabiltzen da lehen eta bigarren gradurako, *oik* (hauek, horiek) eta *aik* (haiek) hirugarren gradurako. Arbizun, *ubek-oiek-aiek* dira hiru burutzapenak.

<sup>33</sup> Zenbatzaile zehaztuen kasuan bi joera daude Sakana erdialdean ehunekoei dagokienez: *be-rraun/bitenaun*, *irureun/irutenaun*, *laureun/lautenaun*...

<sup>34</sup> *eu* > *au* diptongo irekiera oso emankorra da Sakana erdialdean: *auri*, *auli*, *aultxo*, *aun* (ehun), *laurri* (neurri), *laun* (leun)...

<sup>35</sup> *garairik* zen galdetutako hitza, eta ez da erabiltzen gure esparruan. Burutzapen berdinarekin, *gau* + *-ik*, *gaubik* izango genuke Sakana erdialdean, *u*-ren ondorengo kontsonantearen epentesia gautzatuz, hurrengo galderan bezala.

<sup>36</sup> Galdetutako hitz hau ez da ezaguna Sakanan, normalean *osto* eta ez *orri* erabiltzen baita. Hala ere, behin gutxienez, belar baten izenean, ondorengo fitonimoa entzun daiteke: *iruorribelarra*.

<sup>37</sup> Akats galanta galdera honetakoa. *Neuan* aditz forma zen galdetzen zena, eta erantzundakoak, Etxarrin soilik gainera, ez du zer ikusirik. Bizkaierako aditz forma honek ondorengo ordainak ditu Sakana erdialdean: *neen* (Etxarri), *nuen* (Ergoiena, Arruazu eta Uharten), *nubuen* (Arbizun) eta *nuben* (Lakuntzan).

<sup>38</sup> Hauexek dira pertsona izenordain arrunten pluraleko bigarrenaren forma indartuak, hots, *zeuek*-en ordaina.

<sup>39</sup> *Burni* eta ez *burdin* da Sakana erdialdeko burutzapena.

<sup>40</sup> Berrero ere bizkaierako aditz forma da galdetutakoa, eta hauexek bere ordainak gure esparruan. Aipagarria da pluraleko hirugarren pertsona-ezaugarria berdintsua dela Sakana erdialdean, *-b(i)e*.

<sup>41</sup> Deklinabideko leku-denborazko kasuetan ez dute *u-z* bukaturiko lexemek *b* kontsonante epentetikorik tartekatzen pluraleko kasu-markak, ezta zenbaitetan singularrekoak ere, eransterakoan: *eskuten* (eskuetan), *eskutaa* (eskuetara), *eskue* (eskura), *eskuteti* (eskuetatik) *eskuti* (eskutik), *eskuteko* (eskuetako), baina *eskube* (eskua), *eskubai* (eskuari), *eskuben* (eskuan), ...

<sup>42</sup> *i* + *bokala* > *iy*(*bokala*) burutzapena gertatzen da normalean Sakana erdialdean, zenbait kasutan hasierako *e*-ren itxiera suertatu ondoren: *e(h)o* > *io* > *ijo*, *ea* > *ia* > *iya* > *iye*.

<sup>43</sup> *Idoia* da galdetutako hitza, eta esparru osoan ‘lohi’-rekin eman zaio erantzuna. Burutzapena berdina da, eta gainera, *idoittu* erabiltzen da Sakana erdialdean, txerriak lokatzetan zilipurdika ibiltzen direnean. Mitxelenak ere (1996, OEH, IX, 137) horrela definitzen du: “*idoi* (...) *Pantano*, *ciénaga*. <*Cenagal* o *charco* donde se rebullan cochinos> ...”.

<sup>44</sup> I,52,a) galdera, *oin*, ez da jaso, ez baita inoiz hitz hau soilik, atzetik morfemaren bat duela gutxienez ez bada, erabiltzen: *oñes*, *oñetako*, *oñusetan*, *oñutsik*, ... Gogoratu instrumentalaren morfema Sakana erdialdean.



GALDETEGI MORFOLOGIKOA

255 galdera dira, 69 burutzapen morfolo­giko landu nahirik.

	<i>EI-ETXARRI</i> (egungoa)	<i>EI-ARBIZU</i> (egungoa)	<i>EI-UHARTE</i> (egungoa)	<i>LAK-ARR</i>
II,1,A <sup>45</sup>	nites	-gati (nites)	-gatik (nites)	
II,1,B	ontas	-gati (ontas)	-gatik (ontas)	
II,1,Z	hortas	orengati (ortas)	-gatik (ortas)	
II,1,D	hartas	-gati (artas)	-gatik (artas)	
II,1,E		-gati*	-gatik*, -n ganetik*	
II,1,F	gizonangati (gizonas)	-gati (gizonas)	-gatik (gizonas)	
II,2 <sup>46</sup>	gaztetxo	gaztetxo	gaztetto (gaztetxo)	
II,3,a)	(mando)	(mando)	manddo (mando)	
II,3,c)	motx	motx	motx	
II,3,d)	ñabar	(ñabar)	(ñabar)	
II,3,e)	orratx	(orratx)	(orratx)	
II,3,f)		txali*		
II,4,A,b) <sup>47</sup>	aunditzar (aundizar)			
II,4,A,c)	etxetzar (etxezar)			
II,4,B,e)	(mozketo)	(mozkito), moxkito	(mozkito)	
II,4,D,a)	txerri (zerri)	(zerri)	(zerri)	
II,4,D,b)	txakur (zakur)	(zakur)	(zakur)	
II,5,a) <sup>48</sup>	bidlu (biel­du)	bidaldu (biel­du)	bidaldu (biel­du)	
II,5,b)	estali	estali	(estali), estaldu	
II,5,c)	sartu	sartu	sartu	
II,5,d)	zabaldu	zabaldu	zabaldu	
II,5,e) <sup>49</sup>	zoldu (zornatu)	(zornatu)	(zornatu)	
II,5,f)	zorroztu	zorroztu	zorroztu	
II,5,h)	bazkaldu	bazkaldu	bazkaldu	
II,5,i)	afaldu	apaldu (afaldu)	apaldu (afaldu)	
II,5,j)	(gosaldu)	gosaldu	gosaldu	
II,5,k) <sup>50</sup>	(bendatu)	(bendatu)	(bendatu)	
II,5,l)	artu	artu	artu	
II,5,m)	moztu	moztu	moztu	

<sup>45</sup> Hau eta hurrengo bost galderak, *nortaz-zertaz* galdetzaileari buruzkoak dira, eta Sakana erdialdean *-tas* dugu kasu-marka. Galdetzailea *norengatik* izanez gero, bai erabil daiteke *-gati* morfema.

<sup>46</sup> Honetan eta hurrengo bostetan, txikigarriak landu nahi dira, baina erabili diren hitzak ez dira egokienak Sakana erdialdean etekin handirik ateratzeko. Elementu txikigarrien artean, nagusia bus-tidura dugu esparru osoan (*motxa, xagu, gixon...*), eta baita *-(t)to* eta *-txo* morfemak ere (*ttikitto, nes-kato, amatxo, aitatxo, Martintxo...*). Bestalde, II3f galderako Arbizuko emaitza ez dakit nondik sortu den, kontuan izanik *koxera* eta *koxerilla* hitzak daudela indarrean esparru osoan. Ezaguna da *zaliye/zaliya*, lapikokoa plateretan banatzeko tresna adierazten duelarik, baina ez dut inoiz beste *'txali'* hau entzun.

<sup>47</sup> Handigarriak ditugu hurrengoak, baina esan behar dut *-zar* (afrikatu gabe beti) eta *-kote*-ren ordaina (metatesia eta guzti) kasu batean soilik bada ere, erabiltzen direla: *pelmazar, txakurzar, mozketo/mozkito*. EI-n agertzen diren gainerako emaitzak ez dira erabiltzen. Era berean, II4Da eta II4Db galderetan hasierako afrikatu ahoskabeen aldaketa handigarri moduan aurkezten da, *tx-* > *tz-*, eta Sakanan, berriz, handigarritasun hori lortzeko, hasierako sabaiko afrikatu ahoskabea bizkarhobietako igurz-kari bihurtuz gauzatzen da: *Zerriyoi!* (Zerri hori!), *Zakurroi!* (Zakur hori!).

<sup>48</sup> Aditz partizipioei dagokienez, badira gure esparruan zenbait partizipio analogiko, hots, normalean *-i-z* edo *-n-z* bukatu beharko liratekeenak, baina *-tu* edo *-du* bukaera hartzen dutenak: *biel-du* (bidaldu), *ibildu* (ibili), *yondu* (egon), *izendu* (izan), *bizittu* (bizi), *uraittu* (eduki), *jakindu* (jakin).

<sup>49</sup> Ez da *'zoldu'*, *zornatu* baizik erabiltzen, zauri bat gaiztotu dela esan nahi dugunean.

<sup>50</sup> Hauxe izango litzateke bere bilakabidea: *merendatu* > *berendatu* (b/m txandaketa) > *beendatu* (bokal arteko r-ren galera) > *bendatu* (V<sub>1</sub>V<sub>1</sub> > V<sub>1</sub>).



II,6,a) <sup>51</sup>	goitik (goitti)	(goitti)	(goitti)
II,6,b)	gourtik (gaurti)	gaurti	gaurtik (gaurti)
II,6,c)	lendik, lendanik (lendi)	lendi	lendik (lendi)
II,6,d)	noiztik (noizti)	noizti	noiztik, noizezkeros (noizti)
II,6,e)	guaidanik (guañi)	(guañi)	oraindik (guañi)
II,6,f)	(orduti)	orduti	ordutik, orduezkeros (orduti)
II,6,g)	betidanik, betidana (betitti)	(betitti)	(betitti)
II,6,h)	txikitetik (txikiteti)	txikitati	txikitatik (txikiteti)
II,6,i)	aspalditik (aspalditti)	aspalditi	aspalditik (aspalditti)
II,6,k)	bartik (barteti)	(barteti) barteskero	(barteti)
II,7,c) <sup>52</sup>	biyerdanik*		-tik*
II,7,d)	etzidanik*		-tik*
II,8,a) <sup>53</sup>	(irrutitti)	-di (irrutitti)	-dik (urrititti)
II,8,b)	(tripeti)	sabeleti	-tik (-ti)
II,9,A,a) <sup>54</sup>	gourarte (gaurartio)	(gaurartio)	(gaurartio)
II,9,A,b)	(guaiartio)	orainarte (guaiartio)	orainarte (guaiartio)
II,9,A,c)	lenarte (lenartio)	(lenartio)	(lenartio)
II,9,A,d)	egunarte (egunartio)	(egunartio)	(egunartio)
II,9,A,e)	betiarte (betiartio)	(betiartio)	(betiartio)
II,9,B)	guano (guaño, guañi)	oraiñi (guaño, guañi)	oraiño, oraiñik (guaño, guañi)
II,10,a)	etxetik (etxeti)	etxeti	(etxeti)
II,10,b) <sup>55</sup>	popatik*		
II,10,c)	nundik (nundi)	(nundi)	(nundi)
II,12,a) <sup>56</sup>	usurbiltar, (usurbildar)	(usurbildar)	usurbildar
II,12,b)	baztandar	(baztandar)	(baztandar)
II,12,c)	larraundar	(larraundar)	(larraundar)
II,12,d)	larrauldarrak	(larrauldarrak)	larrauldarrak
II,12,e)	erreziltar (errezildarrak)	(errezildarrak)	errezildarrak
II,12,f)	madrildarrak	madrildarrak	madrirtar (madrildarrak)
II,12,g)	idiazabaltar (idiazabaldarrak)	(idiazabaldarrak)	idiazabaldarrak
II,12,h)	iruntarrak, (irundarrak)	irundarrak	irundarrak
II,12,i)	arakiltar (arakildarrak)	arakildarrak	arakildarrak
II,12,j)	erasundarrak	erasundarrak	erasundarrak
II,12,k)	erronkaltarra (erronkaldarra)	(erronkaldarrak)	erronkaldarrak
II,13,a) <sup>57</sup>	(bizerdo)		
II,14,a) <sup>58</sup>	urrengo egunien	egunian (egunien)	egunien
II,14,b) <sup>59</sup>	egunekue	egunekoa (egunekua)	(egunekue)

<sup>51</sup> Ablatiboaren singularreko morfema *-ti/-di* dugu esparru osoan, bukaerako belare herskari ahoska-bearen galera jasaten duelarik: *emendi, orti, andi, gaurti, ...* II6c galderan Etxarrin agertzen den *lendanik* emaitza, ez da inoiz gertatzen, *-eskios* partikularen bitartez burutze delarik: *leneskios, betieskios, atzoeskios...*

<sup>52</sup> *-ganik, -danik* morfemen burutzapenak jaso nahi izan dira galdera hauetan, baina ez dira Sakana erdialdean erabiltzen, nahiz eta biren kasuan erantzunak agertu. Gure esparruan, *-eskios* edo *-(t)ti* erabiltzen dira: *betitti/betieskios, guaitti, biyerti, etzitti/letzieskios*.

<sup>53</sup> Ez da burutzapenik agertzen EI-n galdera honi dagokionez. *Urrundik* galdetu zen, eta Etxarririk Arruazuraino *irriti* da erabiltzen den aldaera (*u - u > i - u*), eta Uharten, berriz, *urriti* (*u - u > u - ï*).

<sup>54</sup> *-dano* morfemaz galdetzen da galdera hauetan, eta Sakana erdialdean *artio* partikula eransten da: *gaurartio, guaiartio* (orain *artio*), *lenartio, betiartio...*

<sup>55</sup> Ez da *popa* erabiltzen esparru osoan.

<sup>56</sup> II, 11 taldeko galderak erantzun gabe daude, ez baita *-gu* atzizkia esparru guztian erabiltzen. Nongotarra den norbait adierazteko erabiltzen den morfema, *-l* edo *-n* kontsonantez bukatuiko lexemen kasuan, beti hortzetako herskari ahostunaren alde burutzen da: *andoaindarrak, urdindarrak, madrildarrak, arakildarrak...*

<sup>57</sup> Galdera honetan azaltzen den atzizkia, *-do*, oso gutxitan erabiltzen da Sakanan, gehien bat ezaugarrien bat azpimarratu nahian: *bizerdo, bizkerdo* (konkordun).

<sup>58</sup> Gogoratu *-ea-* taldeak *-ie-* ematen duela beti hitz barruan, eta *-iel-ia* hitz bukaeran.

<sup>59</sup> *-oa > -ue* ematen du Etxarri, Lizarraga, Lakuntza eta Uharten, eta *-ua* Sakana erdialdeko gainerako herrietan.

II,14,c)	egunetik (eguneti)	(eguneti)	(eguneti)	
II,14,d)	egunkue (egungue)	gaurko (egungua)	(egungue)	
II,14,e)	gourtik (gaurti)	(gaurti)	(gaurti)	
II,15,A,a) <sup>60</sup>	maietik (meiti)	maiti (meiti)	maietik (meiti)	
II,15,A,b)	meiyen	maian (meyen)	maiean (meyen)	
II,15,A,c)	(meyekue) (meikue)	maikoa (meikua)	maiekua, maikoa (meikue)	
II,15,A,d)	meire	maira (meira)	maiera (meire)	
II,15,B,a)	jeyen	jaian (jeyen)	jaien (jeyen)	
II,15,B,b)	jeitik (jeiti)	(jeiti)	(jeiti)	
II,15,Z <sup>61</sup>	aizko tostadak (ayesko)	(ayesko)	(ayesko)	
II,16,A,a)	goutik (gaubeti)	gautetik (goubeti)	gautetik (gaubeti)	
II,16,Ab)	gouben (gaubien)	gauean (goubien)	gauean (gaubien)	
II,16,A,c)	goukue (gaubekue)	gauekoa (goubekua)	gauekoa (gaubekue)	
II,16,A,d)	goura (gaubia)	gauera (goubia)	gauera (gaubia)	
II,16,A,e)	gourako (gaubiako)	gauerako (goubiako)	gauerako (gaubiako)	
II,16,A,f)	gourarte (gaubartio)	gauerarte (goubartio)	gauerarte (gaubartio)	
II,16,B <sup>62</sup>	toki launen (launien)	(launien)	(launien)	
II,17,A <sup>63</sup>	amana	amaena (amana)	amana	
II,17,B)	senarrana	senarraena (senarrana)	senarrana	
II,18,A <sup>64</sup>	amandako	amandako	amandako	
II,18,B)	(senarrandako)	(senarrandako)	(senarrandako)	
II,19,a) <sup>65</sup>	Irunkue (Irungue)	Irungoa (Irungua)	Irungoa (Irungue)	
II,19,b)	Iruntik (Irundi)	Irundi	Irundik (Irundi)	
II,19,c)	emengue	emengoa (emengua)	emengoa (emengue)	
II,19,d)	emendik (emendi)	emendi	emendik (emendi)	
II,20,a)	Madrilkue (Madrilgue)	Madrilgoa (Madrilgua)	Madrilgoa (Madrilgue)	
II,20,b)	Madrildik (Madrildi)	Madrildi	Madrildik (Madrildi)	
II,20,c)	Usurbilkie (Usurbilgue)	Usurbilgoa (Usurbilgua)	Usurbilgoa (Usurbilgue)	
II,20,d)	Usurbildik (Usurbildi)	Usurbildi	Usurbildik (Usurbildi)	
II,21,A,a)	(Eibarkue) Eibargue	Eibargoa (Eibarkua)	Eibarkoa (Eibarkue)	
II,21,A,b)	Barazarkue	(Barazarkua)	Barazarkoa (Barazarkue)	
II,21,A,c)	Baraibarkue	Baraibargoa (Baraibarkua)	Baraibarkoa (Baraibarkue)	
II,21,B,a) <sup>66</sup>	Eibartik (Eibardi)	Eibardi	Eibartik (Eibardi)	
II,21,B,b)	Barazartik, -dik (Barazardi)	(Barazardi)	Barazartik (Barazardi)	
II,21,B,c)	Baraibartik -dik (Baraibardi)	Baraibardi	Baraibartik (Baraibardi)	
II,22,A,a)	Miravalleskue (Miravallesgue)		Miravallesgoa (-gua)	-koa (Miravallesgue)
II,22,A,b)	Miravallestik, -dik (-di)	Miravallesdi	-tik (Miravallesdi)	
II,22,B,a)	(E.Aranazkue), -gue	E.Aranazgoa (-kua)	E.Aranazkoa (-kue)	
II,22,B,b)	E.Aranazdik (E.Aranazdi)	E.Aranazdi	E.Aranaztik (E.Aranazdi)	

<sup>60</sup> *-i-z* bukaturiko lexemei eransten zaien morfema kontsonatez hasten bada, ez zaie tartekatzen *y* kontsonante epenetikoa, bai ordea aipatu morfema bokalez hasten bada: *meiti* (mahaitik), *meiko* (mahaiko), *meiyen* (mahaian), *meire* (mahaira), *meiyai* (mahaiaari)...

<sup>61</sup> Irinez egindako 'papillei' *aye* esaten zaie, eta zerez egin adierazteko *-sko* atzizkia erabiltzen da: *ayesko* (ahizko), *burnisko* (burdinezko), *zuresko* (zurazko)...

<sup>62</sup> Galdera honetan agertzen den *laun* hitzak bi esanahi ditu Sakana erdialdean, *leun* batetik, eta *lau* (toki lau) bestetik.

<sup>63</sup> Edutezko genitiboaren kasuan ondorengo bilakabidea suertatzen da Sakana erdialdean: *-aren* > *aen* (bokal arteko *r*-ren galera) > *aan* ( $V_1V_2 > V_1V_1$ ) > (*an*) ( $V_1V_1 > V_1$ ): *ama(a)n*, *senarra(a)n*...

<sup>64</sup> Destinatibo kasuko morfema ez da *-arentzat*, *-aandako* baizik esparru osoan: *amaandako*, *se-miendako*, *aittaandako*...

<sup>65</sup> Lekuzko-genitiboaren kasuan, *-n*, *-l* eta baita *-s-z* bukaturiko lexemei *-go(-guel-gua)* morfemak eransten zaizkie: *emengue/emengua*, *Irungue/Irungua*, *Arakilguel/Arakilgua*, *Parisguel/Parisgua*, *Miravallesguel/Miravallesgua*, *Lurdesguel/Lurdesgua*... Gainerakoei *-ko* (*-kuel-kua*).

<sup>66</sup> Ablatiboaren kasu-markak *-ti/-di* ditugu singularrean, baina kontsonantez bukatzen diren izen nagusien kasuan beti neutralizatzen da hortzetako herskari ahosunaren alde: *Eibardi*, *Parisdi*, *Portugaldi*, *Irundi*, *Madrildi*... Bestela, *Alsasuti*, *Olaztitti*, *Bakaikuti*...

II,22,Z,a)	Lurdeskue, (Lurdesgue)	Lurdesgoa (Lurdesgua)	Lurdeskoa (Lurdesgue)
II,22,Z,b)	Lurdestik, -dik (Lurdesdi)	Lurdesdi	Lurdestik (Lurdesdi)
II,23,A <sup>67</sup>	mendi batien (betien)	batean (batien)	batean (batien)
II,23,B	egunbatien (egunbetien)	egunbatean (egunbetien)	egunbatean (egunbetien)
II,24 <sup>68</sup>	mendiralde (mendialdia)	aldera (aldia)	aldera (aldia)
II,25 <sup>69</sup>	nekin (neeki)	nereki (neeki)	nerekin (neeki)
II,26	gizonaki, (gizonai)	gizonai	gizonai
II,27 <sup>70</sup>	zorian*, ez galdu bei galdu	estaduban,ez galdu bai galdu	galdu nayek, ez galdu bai galdu
II,28 <sup>71</sup>	elduen illaako	illerako (illaako)	illerako (illaako)
II,29,A <sup>72</sup>	eztulken	eztulka	eztulka
II,29,B	isilka misilka (ixilken)	isilka misilka (ixilken)	isilka misilka (ixilken)
II,30,A <sup>73</sup>	isilbe (ixildubee)	(ixildubee)	(ixildubee)
II,30,B	aspertube	(aspertubee)	(aspertubee)
II,30,Z	goartu be (guartubee)	(guartubee)	(guartubee)
II,30,D	betebe	(betebee)	(betebee)
II,31,A <sup>74</sup>	oyelki*	oialki*	oialki*
II,31,B	txalki*		
II,32,A	arreikiye*		
II,32,B	bigunki*		
II,33,A <sup>75</sup>	nun	nun	non (nun)
II,33,B	nundik, -tik, -ti (nundi)	(nundi)	nondi (nundi)
II,34	noiz	noiz	noiz
II,35	nola	nola	nola

<sup>67</sup> Bat zenbatzaileari inesiboko morfema singularra eranstean badiogu *batien* emaitza izango dugu, baina determinatzaile moduan agertzen denean, eta determinatzen duen hitza, sandhi-a bihurtzen delarik, goiko bokalez bukatzen bada, edo gutxienez azken silaban goiko bokala badarama, asimilazio aurrerakaria jasaten du: *mendibetien, erribetien, egunbetien, putzubetien...*

<sup>68</sup> Norabide zuzenezko adlatiboaren kasuan ez da esparru osoan *-rantz (-runtz)* atzizkia erabiltzen, *aldia* (aldera) posizioaren bitartez gauzatzen delarik aipatu burutzapena: *mendialdia* (mendiantz), *etxealdia* (etxerantz)...

<sup>69</sup> Sozietibo kasuan erabiltzen den kasu-markak, bukaerako hortzobietako sudurkari ahostunaren eta bokal arteko dardarkari xamurraren galera jasaten ditu Sakana erdialde guztian, eta kasu guztietan gainera  $V_1V_2 > V_1V_1$  bilakabidea ere: *neeki, zuuki* (zurekin), *amaaki* (amarekin), *gizonaaki* (gizonarekin)...

<sup>70</sup> Galdetzen den burutzapena *-t(z)eko zorian* da ('A punto de perderse'), eta Sakana erdialdean ez da horrela erabiltzen, bai beste bi modutan gutxienez, (*bei*) ..., *ez ...* eta *-t(z)eko(tan)*: (*Bei*) *Allaatu, ez allaatu zio!* ((Bai) Ailegatu, ez ailegatu zegok!) *Allatzeko(tan) yon ber dik!* (Ailegatzeko zorian egon behar du!). Ikusten denez, lehenaren kasuan, baiezko partikula erabil daiteke ala ez, baina gehienetan ez da erabiltzen; bigarrenarenean ere, *-t(z)eko* ala *-t(z)ekotan*, biak, erabiltzen dira.

<sup>71</sup> 'Etorri' aditza ez da era sintetikoan erabiltzen, bere ordeztu *eldu (izan)* agertuko zaigu beti, singularreko hirugarren pertsonako laguntzailearekin osatzen duen sandhi-an hortzetako herskari ahostuna galtzen delarik hizkera arinean: *elduen urtien* (heldu den urtean, datorren urtean), *elduen illaako* (hilerako).

<sup>72</sup> *-ka* edo *-kan*, sudurkaria eranstean zaiolarik, dira erabiltzen diren atzizkiak: *eztulka, eztulken, golpeka, golpekan, garraxika, garraxiken...* Ikus daiteke goiko bokalen eragina atzizkiaren bokaleko asimilazioan.

<sup>73</sup> Ez da *-t(z)eko* atzizkia erabiltzen, *-be* (-bage) baizik, aditz-partizipioari erantsirik: *ixildubee* (isiltzeke), *muittubee* (mugitu bage, mugitzeke), *aspertubee* (aspertzeke), *guartubee* (ohartzake), *betebee* (betetzeke).

<sup>74</sup> *-ki* atzizki eratorlea, gehien bat haragi mota eta baita zerbaiten gaia edo zerbaitetarako gauza adierazteko erabiltzen da: *txerriki, ardiki, axurki, tripeki, gizenki* (gantza), *epeki* (adabaki), *galtzasoki* (liga), ... Hala ere, *txahal* hitza ez da erabiltzen esparru osoan, *txekor* eta *bigentxa* baizik, beraz ezinezkoa da *txalki* Sakana erdialdean agertzea. Normalean, *aragi* erabiltzen denean, *txahal* edo behi haragiari dagokio, eta beste mota bat izanez gero, orduan bai zehazten da. Eta *arraiki*-ari dagokionez, atzizkirik gabe entzuten da beti: *Ze nei dezu, aragiye o arreye?* Bestalde, moduzko aditzondo bezala, adjektiboa bera bihurtzen da aditzondo gure esparruan kasu anitzetan: *zuzen* (*Zuzen jokatu bierra zio!*), *bigun, segururu...* Ondorengoak, bai erabiltzen dira: *obeki, aungi, geizki, txarki, poleki, aurki, ederki...*

<sup>75</sup> Sudurkariaren aurreko bokalaren itxiera ohikoa da Sakana erdialdean: *nun, nundi, nungue, aungi, aundi, auntzi...*

II,36	nolakue	nolakoa (nolakua)	nolakoa (nolakue)	
II,37	zenbat	zenbat	zenbat	
II,38,A	nor	nor	nor	
II,38,Z <sup>76</sup>	nork (nok)	nork (nok)	nork (nok)	
II,39,A	zer, (ze)	zer, (ze)	zer, (ze)	
II,39,B	zer, (ze)	zer, (ze)	zer, (ze)	
II,40,A	zein	zein	zein	
II,40,B	zein	zein	zein	
II,41,A <sup>77</sup>	neoni (nioni)	nerau (neroi)	nerau (nioni)	
II,41,B <sup>78</sup>	yorri	erori (eroi)	erori (yorri)	
II,41,Z	biure (bia)	bera (beroi)	bera (bia)	
II,41,D	giok	gerok (geroi)	gerok (giok)	
II,41,E	zeori (ziori)	zerori (zeroi)	zerori (ziori)	
II,41,F	zuek (zioik)	zeroriek (zeroik)	zerok (zioik)	
II,41,G	yak	berak (beroi)	berak (yak)	
II,42,A <sup>79</sup>	debie	dubie	dute (dube)	dube (La,Ar) (dubie) (Lak)
II,42,B	dou (dau)	du	du	
II,42,Z <sup>80</sup>	deena	dubena	duena (dubena)	
II,42,D	dela (deela)	dubela	duela (dubela)	
II,43 <sup>81</sup>	non (noon)	nion	(nion)	
II,44	nazazu	nazazu	nezazu	nitzazu (Lak) (nazazu)
II,45 <sup>82</sup>	dakat	daukat (dakak)	doket (douket)	dakat (Lak) (dekat), doket (Ar) (dokit)
II,46,A <sup>83</sup>	baaki	badaki (baaki)	badaki (baaki)	
II,46,B <sup>84</sup>	banakiyen	banakien	(banakiyen)	
II,46,z	balaki	balaki	balaki	
II,46,D <sup>85</sup>	banaamate (banaamabic)	banaramiye (banaamiye)	baneamic	baneamic (Ar), baneramaic(Lak) (baneamic)
II,47,A <sup>86</sup>	eztaki	eztaki	eztaki	

<sup>76</sup> Galdetzaille guztiek galtzen dute dardarkaria gure esparruan: *nok, zeengati, noon, noi, noonda-ko, noongati, ze...* Eta gainera, ez dira erabiltzen pluraleko formak (nortzuk, zeintzuk), balio bikoitza dutelarik forma bakarrak.

<sup>77</sup> *Neroni* formatik datorkigu Etxarri eta Uharten, bokal arteko dardarkaria erori eta e-ren disimilaketa gertatu ondoren: *neroni > neoni > nioni*. Arbizun, aldiz, ondorengoa da bilakabidea: *neroni > neroi*, bokal arteko sudurkaria galduz.

<sup>78</sup> Hasierako *e-* bokalari kontsonante erorkorrek jarraitzen dionean gertatzen den bilakabidea dugu Etxarri, Lizarraga, Unanu, Lakuntza, eta zenbaitetan Uharten ere bai:  $e + C + V > e + V > i + V > yV$  (*eraman > eaman > iaman > yaman; egon > eon > ion > yon; (h)erori > eori > iori > yori; erak > eak > iak > yak*).

<sup>79</sup> *-b(i)e* dugu Sakana erdialde ia guztian (Ergoienan *-or(i)e*) Nork pluraleko hirugarren pertsonaren ezaugarria: *debie/dubie/dube, zebien/zubien/zuben, dakabie, dakibie, diruibie...*

<sup>80</sup> Badirudi *-eu-* dela Nor-Nork erako aditz laguntzailearen erroa Etxarrin, eta *-u-* berriz Arbizu eta Uharten: *neuen > neen; nuen > nuben* (u-ren ondorengo kontsonante epentetiko).

<sup>81</sup> Kasu honetan ere, erro desberdinak ditugu Nor-Nori-Nork erako aditz laguntzailearen kasuan, *-erau-* Etxarrin, eta *-i-* Arbizu eta Uharten: *nerauon > neauon > neuon > neon > noon*. Hala ere, Arbi-zu eta Uharteren kasuan, diptongaturik agertzen da aditz forma hau, hots, silaba bakarrekua dugu.

<sup>82</sup> Monoptongaketa gertatzen da ia esparru osoan (Uhartre eta Unanuko kasuetan izan ezik) 'eduki' aditzaren forma sintetikoetan: *dakat, dekat, dokit*.

<sup>83</sup> Bokal berdinen arteko bokalaren galera jasaten du.

<sup>84</sup> Nahiz eta lehen aldiko aditz forma izan, ikusten denez, orain aldiko hasierako marka mantentzen du, Nafarroa eta ekialdeko beste hizkera batzuetan bezala.

<sup>85</sup> Ez da *-te* morfema erabiltzen esparru osoan pluraleko hirugarren pertsonaren kasuan.

<sup>86</sup> *Ez* partikularren ondorengo zenbait kontsonanteren burutzapenak ikus daitezke galdera honetan eta hurrengoetan. Sakana erdialdean ondorengo burutzapenak suertatzen dira:  $z + d > zd$ ,  $z + b > zp$ ,  $z + g > zg$ ,  $z + l > lz$ ,  $z + n > zn$ ,  $z + z > z$  (*eztooleztan* (ez dago), *ezpeiz* (ez bahaiz), *ezgaa* (ezgara), *elauke/eluke* (ezluka), *ezneiz* (ez naiz), *ezan/ezan* (ez zen).

II,47,B	ezpaleki (ezpalaki)	ezpalaki	ezpalaki	
II,47,Z	ezga (ezgaa)	ezgara (ezgaa)	ezgara (ezgaa)	
II,47,D	eluke janen (elauke)	ezluke jaen (eluke janen)	eluke jaan	
II,47,E	enoi aungi (eznoo)	eznago (eznau)	eznago (eznao)	
II,47,F	ez zan (ezan)	etzen (ezen)	etzen (ezen)	
II,47,G	ezdakik, ettakik (eztakit)	(eztakit)	(eztakit)	
II,47,H	ezgaitzen (ezgettezen)	(ezgeitzezen)	(ezgeitzezen)	
II,47,I,a)	(ezeiz) (eyeiz)	(ezeiz, eyeiz)	(ezeiz, eyeiz)	
II,47,I,b)	ona	(ona)	(ona)	
II,47,J,c) <sup>87</sup>	ez ago	ez ago	(ez ago)	
II,47,J,d)	ezingon (ezengon, eyengon)	(ezengon, eyon)	(ezengon, eyon)	
II,47,J,e)	(ezeiz) (eyeiz)	ez aiz (ezeiz, eyeiz)	(ezeiz, eyeiz)	
II,47,J,f)	ez intzen (eyitzen)	(eyitzen)	(eyitzen)	
II,48,A-B <sup>88</sup>	(neen) nen	nuben (nubuen)	nuen	nuban (Lak) (nuben)
II,49 <sup>89</sup>	dakit	dakitt (dakit)	dakie	
II,50,A <sup>90</sup>	diela	(diela)	(diela)	
II,50,B	zienien	(zienien)	(zienien)	
II,50,Z	gaala	(gaala)	(gaala)	
II,51,A-B <sup>91</sup>	balooke (badoo)	badio	badio	
II,52	ikuskoga (alkar ikusko diau)	alkar ikusiko dugu (alkar ikusko duu)	alkar ikusiko dugu (alkar ikusko duu)	
II,53,A <sup>92</sup>	det	dut	(dut)	
II,53,B <sup>93</sup>	detela	dutela	dutela	
II,53,B <sup>*94</sup>	yat (dakitt, dazkit)	dazkit, dazkigu	(dakitt, dazkit)	

<sup>87</sup> Singularreko bigarren pertsonaren aditz formei buruzkoak ditugu galdera hauek, eta Sakana erdialdean, *y-dun* formak ditugu erabat hedatuak: *yeiz* (haiz), *yitzen* (hintzen), *yabil* (habil), *yueke* (hoake), *yakan* (heukan)...

<sup>88</sup> 80. oharrekoa errepika daiteke: *-eu-* erroa Etxarrin, eta *-u-* Arbizu eta Uhartin. *Neuen* > *neen*; *nuen* > *nuben*.

<sup>89</sup> Azkuek (1969, 575), Inzak (1922, 71-72) eta Zuazok (1998, 223), beste autore batzuen artean, jaso dute Sakana erdialdeko NN<sub>i</sub> erako aditz formen *-ki-* erroaren presentzia. Beraz, ondorengoak ditugu, esparru osoan, Nor Hura izanik aipatu aditz formak: *dakitt/dakie* ('zait', bigarrena Uhartin eta lehena gainerako herrietan), *dakik-n* ('zaik-n', esparru osoan), *daki(y)o* ('zai'o', *dakio* Lakuntza, Arruazu eta Uhartin), *daki(g)u* ('zaigu', *dakiu* Arbizu, Lakuntza eta Arruazun), *dakizu* ('zaizu', esparru osoan), *dakizub(i)e/dakizie* ('zai'ue', *dakizube* Lakuntza, Arruazu eta Uhartin; *dakizie* Ergoienan), *daki(y)ob(i)e/dakiyue* ('zai'e', *dakiyobie* Etxarrin; *dakiobe* Lakuntza, Arruazu eta Uhartin; *dakiyue* Arbizu eta Ergoienan).

<sup>90</sup> *Dira* + *-la* > *diela* ematen du Sakana erdialdean, bokal arteko dardarkaria galduz eta menperagailuaren bokala asimilatuz. Era berean, *ziren* + *-nean* > *zienien*, dardarkariari dagokionez gauza bera gertatzen zaiolarik, eta horretaz gain *-ea-* > *-ie-* disimilazioa; eta *gara* + *-la* > *gaala*, berriro ere dardarkaria galduz.

<sup>91</sup> Bizkaierako NN<sub>i</sub>N<sub>k</sub> erako aditz forma galdetzen da honetan, *Hark-Hari-Hura* flexioa hain zuzen, eta ez da batera zuzena Etxarrin jaso den burutzapena. *Badoo* izango litzateke erantzun egokia, ondorengo delarik bere bilakabidea: *\*baderano* > *\*badeano* > *\*badeuo* > *\*badeo* > *badoo*. Gogoratu aurrerago nioena, NN<sub>i</sub>N<sub>k</sub> erako aditzen erroari buruz, *-erau-* Etxarri eta Ergoienan, eta *-i-* Arbizutik ekialdera. Ondo daude jasoak, beraz, Arbizu eta Uharteko burutzapenak.

<sup>92</sup> Sakana erdialdean hiru burutzapen ditugu NN<sub>k</sub> erako Nor Hura denean erabiltzen diren flexioetan: *-e-dun* burutzapenak Etxarrin (*det*, *dek-n*, *dezu*, *dezubie*, *debie*), *-o-dun* burutzapenak Ergoienan (*dot*, *dok-n*, *do*, *dou*, baina *dezu*, *dezue*, *due*), eta *-u-dunak* Arbizutik ekialdera (*dut*, *duk-n*, *du*, *duu*, *duzu*, *duzubie/duzube*, *dubie/dube* lehen burutzapenak Arbizu eta Lakuntzan, bigarrenak Arruazu eta Uhartin).

<sup>93</sup> Nork singularreko lehen pertsonaren ezaugarria, *-t-*, ez da inoiz *-da-* bihurtzen, morfemaren bat eranstean zaionean, aipatu morfema haxe zuzenean eranstean zaiolarik: *det/dut/dot* + *-ela* > *dete-la/dutela/dotela*, *dakiten* (zaidan, dakidan)...

<sup>94</sup> NN<sub>i</sub> erako aditz laguntzailearen kasuan, Nor plurala denean *-z-* pluralgilea hartzen du Sakana erdialde ia osoan, Lakuntzan izan ezik, hemen *-zki-* hartzen baitu: *dazkik/dakizkik* (zaizkik), *dazkizu/dakizkizu* (zaizkizu).

II,54 <sup>95</sup>	yan	ean (aan)	edan (ean)
II,54*	izen banu (ordueko ezpanau)	banu (ezpanu)	banu (ezpanu)
II,55,A	eman	eman	eman
II,55,B	ematen	ematen	ematen
II,56 <sup>96</sup>	(ilzale) (ilzalie)	iltzale (ilzalia)	ilzale
II,57,A	iltzen	iltzen	iltzen
II,57,B,a)	eskeni (eskeñi)	(eskeñi)	eskeñi
II,57,B,b)	eskeintzen	eskeintzen	eskeintzen
II,58,A <sup>97</sup>	don (doon)	daon (daun)	dagon (daon)
II,58,B	doola	daola (daula)	dagola (daola)
II,59,A-D	det (yaaten det)	edaten dut (aaten dut)	edaten dut (eaten dut)
II,60,A <sup>98</sup>	sure eroi, bota	sura erori (eroi)	sure erori (eroi)
II,60,B	meza fan (mezaa)	mezara (mezaa)	mezara (mezaa)
II,61 <sup>99</sup>	nuanuei (nuanei)	noranai (nuanei)	noranai (nuanei)
II,62,A <sup>100</sup>	ber neiz (biet)	bear dut (biut)	bear dut (bedut)
II,62,B-Z <sup>101</sup>	nai det (nei)	nai dut (nei)	nai dut (nei)
II,62,D,a) <sup>102</sup>	etorri naiz (etortzen neiz)	(etortzen neiz)	(etortzen neiz)
II,62,D,b) <sup>103</sup>	(fan netteke)	(fan netteke)	(fan netteke)
62,D,c) <sup>104</sup>	<i>ezin erori neiz</i> (eroi)	<i>ezin erori naiz</i> (eroi neiz)	<i>ezin erori neiz</i> (eroi)
II,62,D,d) <sup>105</sup>	(ekartzen det)	(ekartzen dut)	(ekartzen dut)
II,62,D,e) <sup>106</sup>	(yaman al det)	(aaman al dut)	(eaman al dut)
II,62,D,f)	<i>ezin yat det</i> (ezin det yan)	(ezin dut aan)	<i>ezin edan det</i> (ean dut)
II,62,E,a)	(eroi ein neiz)	<i>erori egin naiz</i> (eroi ein neiz)	<i>erori egin naiz</i> (eroi ein neiz)
II,62,E,b)	(gordetu ein det)	<i>gorde egin det</i> (gordetu ein dut)	<i>gorde egin det</i> (gordetu ein dut)
II,62,F,a)	(etorri nei det)	(etorri nei dut)	(etorri nei dut)
II,62,F,b) <sup>107</sup>	<i>etortzeko ustie degu</i> (etortzie uste diau)	<i>etortzeka ustea degu</i> (ustia duu)	<i>etortzeka uste degu</i> (etortzie uste duu)
II,63 <sup>108</sup>	<i>oik</i>	<i>ok</i> (ubek)	<i>auk</i> (oik)
II,64	<i>oyek</i> (oik)	<i>oik</i> (oyek)	<i>oiek</i> (oik)
II,65	<i>ayek</i> (aik)	<i>aiek</i>	<i>aiek</i> (aik)

<sup>95</sup> Ondorengo bilakabidea dugu Etxarri, Lizarraga, Unanu eta Lakuntzan: *e-* > *y* / *\_d,g,r* + *V*. Bezaraz, hasierako *e-* bokalari kontsonante erorkor batek jarraitzen dionean, aipatu kontsonantea galdu, e-bokala itxi eta sabaiko igurzkarri ahostuna bihurtzen da, hots, kontsonantizatu egiten da: *yaman* (eraman), *yan* (edan), *yosi* (erosi), *yaniaun* (herenegun), *yakusi* (erakutsi), ... Ez da horrelakorik gertatzen gainerako herrietan, kontsonantea galdu besterik ez Arruazu eta Uhartan, eta honetaz gain  $V_1V_2 > V_2V_2$  era bai Arbizu eta Dorraun: *eaman/laaman*, *eosi/oosi*, *ean/laan*, *eakusi/laakusi*...

<sup>96</sup> *z* kontsonante bizkarhobietako igurzkarri ahoskabea, *l*-ren ondoren doanean ez da afrikatuaren alde neutralizatzen: *ilzan* (hil zen), *ilzalie* (hiltzaila)...

<sup>97</sup> Antzeko burutzapenak ditugu esparru osoan 'egon' aditzari dagokionean. Ikus ditzagun Nor erako zenbait flexio: (dago) *doo* Etxarrin (*dago* > *dao* > *doo*), *dau* Arbizun (*dago* > *dao* > *dau*), eta *dao* Ergoiena, Lakuntza, Arruazu eta Uhartan (*dago* > *dao*); *noo*, *nau*, *nao*...

<sup>98</sup> Ez dira beti mugagabe erabiltzen *sutara*, *uretara*, *mezatarra*... bezalako adierazpenak, mugatu singularrekin ere maiz entzun daitezke: *sure bota*, *ustia sartu*, *mezaa fan*, *meikure fan*...

<sup>99</sup> Esaten nuen lehenago galdetzaileek *-u-* bokala erabiltzen dutela gure esparruan, eta hala ikus daiteke adizlagun honen kasuan ere: *nora* + *nahi* > *nuanei*, diptongoaren itxiera eta guzti.

<sup>100</sup> 'bear dor' zen galdetutakoa, beraz ezin 'izan' aditzaz erantzun, eta gainera kontrakzioa handiagoa suertatzen da, Etxarri eta Arbizun bereziki, aditz forma hauetan: *bear det* > *bierdet* > *biedet* > *bieet* > *biet*; *bear dut* > *bierdut* > *biedut* > *bieut* > *biut*; *bear dut* > *berdut* > *bedut*.

<sup>101</sup> Ez da kontuan izan diptongoaren itxiera.

<sup>102</sup> Ohiturazko orainaldiko formaz galdetzen zen, eta ez burutuaz.

<sup>103</sup> Harritzekoa bada ere, ez ziren erantzunak jaso.

<sup>104</sup> Orden kontua ere aipatu beharrekoa, normalagoa baita osoan *Ezin neiz eroi* entzutea.

<sup>105</sup> Galdera hau eta hurrengoa, berriro, erantzunik gabe geratu ziren Sakana erdialdean.

<sup>106</sup> Gogoratu hasierako *e-* + kontsonante erorkorraren kasuetan gertatzen diren burutzapenak Sakana erdialdean: *yaman/laaman/eamana* (eraman).

<sup>107</sup> 'Uste izan', 'nahi izan', 'espero', aditzarekin *-t(z)ie* (*-t(z)ea*) nominalizazioa erabiltzen da, eta ez *-t(z)eko*: *etortzie uste diau*, *fatie espia diau*, *jakittie nei diau*...

<sup>108</sup> Etxarri eta Uhartan erakusle pluraleko formei dagokienez, sinkretismoa gertatzen da absolutibo eta ergatibo kasuetako lehen eta bigarren mailen artean: *oik* (hauek, horiek).

II,66,A <sup>109</sup>	<i>gonoik</i> (gonoik)	(gonaubek)	(gonoik)	
II,66,B	<i>gonoyen marderea</i> (gonoin ertza)	(gonauen ertza)	(gonoin ertza)	
II,67 <sup>110</sup>	<i>eginkizun</i> (einbierra)	<i>eginkizun</i> (einbierra)	(einbierra)	
II,68 <sup>111</sup>	<i>baaket, badet</i> (baakat)	<i>badaukat</i> (baakat)	<i>badaukat</i> (baakat)	<i>badakat</i> (Lak) (badekat)
II,69,A <sup>112</sup>	<i>baieuken</i> (bazakan)	(bazakan)	(bazakan)	
II,69,B	<i>bazabilen</i> (bazaallen, baziillen)	(bazaallen)		

## GALDETEGI LEXIKOGRAFIKOA

Ia 100 galdera egin dira, baina lexikoari buruzko 68 burutzapeni egokitutakoak.

	<i>EI-ETX.</i> (egungoa)	<i>EI-ARB.</i> (egungoa)	<i>EI-UHA.</i> (egungoa)
III,1,A <sup>113</sup>	<i>euskera</i> (auskera)	<i>euskera</i> (auskera)	<i>auskera</i>
III,2	<i>euskalerrri</i> (auskalerrri)	<i>euskalerrri</i> (auskalerrri)	<i>auskalerrria</i>
III,3 <sup>114</sup>	<i>aixkidie</i> (aixkidie)	<i>aixkidie</i>	<i>aixkide</i>
III,4	<i>zazpi</i>	<i>zazpi</i>	<i>zazpi</i>
III,5 <sup>115</sup>	<i>dena</i>	<i>guzi</i> (guze)	<i>guzi</i> (guze)
III,6 <sup>116</sup>	<i>gaztie</i>	<i>gazte</i>	<i>gazte</i>
III,7 <sup>117</sup>	(astizkena)	(astizkena)	(astizkena)
III,8	(abiatsa, goixue)	(abaatsa, goixua)	(abiatsa, goixue)

<sup>109</sup> Erakuslea determinante moduan galdetzen da kasu honetan, eta jasoa dagoen burutzapenean, plural hurbilaren emaitza baino ez da. Horrela erabiltzen da gure esparruan izena eta erakusleak sortutako sandhi-an: *gona* + *oik* (hauek) > \**gonoaik* > *gonoik*; *gona* + *ubek* > *gonaubek*.. Gauza bera gertatzen da hurrengo galderaren kasuan, oraingoan edute genitiboaren kasuan ezaririk erakuslea: *gonoin* (gona hauen) Etxarri eta Uhartan, *gonauen* Arbizun. Bestalde, ‘el borde’ *ertza* da gure esparruan, eta ez inola ere, EI-n Etxarririkotzat jaso den ‘*marderea*’.

<sup>110</sup> Hitz eratorri honen ordaina, konposaketaren bitartez burutzen da Sakana erdialdean: *egin* + *beharra* > *einbierra*.

<sup>111</sup> ‘Eduki’ aditzaren formak ikusi ditugu lehenago, baina oraingoan *ba-* aurrizkia erantsirik agertzen zaigu, eta bokal berdinen arteko hortzetako herskari ahostunaren galera jasaten du, Lakuntzan izan ezik: *badaukat* > *badakat* (monoptongaketa) > *baakat*.

<sup>112</sup> Lehen aldiaren ere, monoptongatu egiten da, eta gainera ez du lehen aldiko *-e-* ezaugarria erabiltzen, hurrengo galderan ere ederki asko ikusi daitekeelarik: *zaukan* > *zakan*, *zabilen* > *zailen* > *zaa-llen/ziillen*. Aipagarria da azken burutzapen honen kasua Etxarriko hizkeran, ezen bi bilakabide desberdin baititu, eta biak entzun daitezke gainera: *zabilen* > *zailen* > *zaallen* (V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>1</sub>V<sub>1</sub>), eta > *zii-llen* (V<sub>1</sub>V<sub>2</sub> > V<sub>2</sub>V<sub>2</sub>).

<sup>113</sup> Oso ohikoa da *eu* > *au* diptongo bilakaera Sakana erdialde osoan: *auli* (euli), *aultxo* (eltxo), *auski* (eutsi), *auri* (euri), *auskias* (euskaraz), ... Eta ikusten denez, soilik Uharteko burutzapenean izan da kontuan aipatu bilakabidea.

<sup>114</sup> ‘*Aixkidetu zarie?*’ Eta antzeko esaldietan erabiltzen da batik bat. Bokal arteko hortzetako herskari ahostunaren galera eta i-k eragindako asimilazio bustidura jasaten ditu: *adiskidetu* > *aiskidetu* > *aixkidetu*.

<sup>115</sup> Etxarri eta Ergoienan *dena* (guztia) eta *dana* (*dena* < *da* + *-ena*) bereizten dira, ez ordea esparruko gainerako herrietan, bi kasuetan *dena* erabiltzen baita. Bestalde, *guziel/guzia* herri guztietan erabiltzen dira, hots, hortzetako herskari ahostakabeko burutzapenak, eta gainera, *-e-z* bukatutako lexema dugu haxe, *guze* beraz, Uharteko dotrinan bertan ikusi daitekeen bezala: “*Uso arrazobescua dauquien cristau guciac*” (BOE, 1995, 619), “*Cergati vere nai icetierequi eguiyen yuen naiyuen guciac*”, “*Cergati dauscetati inciuyen gauce guciac*” (BOE, 1995, 609). Argi dago beraz, *-e-z* bukatutako lexema baten aurrean gaudela, *-e* + *-a* > *-iel-ia*, eta ez *-i-z* bukatutakoa, ezen horrelakoetan ondorengo bilakabidea gertatzen baita: *-i* + *-a* > *iyeliya* (*erriyelerrriya*, *iriyelirriya*... eta orduan *guziyel/guziyya* eman beharko luke, eta ez da horrelakorik gertatzen Sakana erdialde guztian.

<sup>116</sup> Uhartan, Lizarragan eta Lakuntzan, mugatzerakoan, Etxarriko emaitza berbera ematen du, eta Arbizun, Dorraun, Unanun eta Arruazun asimilaziorik gabekoa, mugatzaile singularra eransterakoan: *gaztia*.

<sup>117</sup> Ez dakit zergatik ez diren agertzen galdera honetako eta hurrengoko erantzunak, hain ezagunak izanik esparru osoan.



III,9 <sup>118</sup>	<i>bizerzube</i>	<i>bizartzu</i> (bizerzuba)	<i>bizartzu</i> (bizerzube)
III,10	<i>esnie</i>	<i>esne</i>	<i>esne</i>
III,12 <sup>119</sup>	<i>garagarrilaren zazpiyen</i> (gaagarrillaan zazpiyen)	<i>garagarrilaren zazpian</i> (gaagarrillaan zazpiyen)	<i>garagarrilaren zazpian</i> (gaagarrillaan zazpiyen)
III,13 <sup>120</sup>	<i>izkera</i>	(izkera)	(izkera)
III,14 <sup>121</sup>	<i>esker mille, (eskerrikasko)</i>	<i>eskerrik asko</i>	<i>eskerrik asko</i>
III,15,A <sup>122</sup>	<i>Donostia</i> (Donosti)	<i>Donostia</i> (Donosti)	<i>Donostia</i> (Donosti)
III,15,B	<i>Donostiko</i>	<i>Donostiko</i>	<i>Donostiko</i>
III,15,Z	<i>Donostira</i> (Donostie)	<i>Donostira</i>	<i>Donostira</i> (Donostie)
III,16 <sup>123</sup>	<i>geyo</i>	<i>geyo</i>	<i>geio</i>
III,17 <sup>124</sup>	<i>zaitu</i> (zaittu, kasuein)	<i>zaittu</i>	<i>zaittu</i>
III,18 <sup>125</sup>	<i>ainyu</i>	<i>agindu</i> (ainddu)	<i>agindu</i> (ainddu)
III,19	<i>lezie</i>	<i>leze</i>	<i>leze</i>
III,20 <sup>126</sup>	<i>illunetati argitaatu</i> (illunpeti argie atia)	<i>ilunetatik argitaratu</i> (illunpeti argira ataa)	<i>argi taratu</i> (argie atia)
III,21,a)	(bizitze)	<i>bizitza</i>	<i>bizitze</i>
III,21,b)	<i>eriotz(a)</i>	<i>eriotze</i>	<i>eriotz(a)</i>
III,21,c) <sup>127</sup>	<i>gauz</i>	<i>gauza</i> (gauz)	<i>gauz</i>
III,21,d)	(erregiñe)	<i>erregina</i> (erregiña)	<i>erregina</i> (erregiñe)
III,21,e) <sup>128</sup>	<i>neskatx(a)</i> (neskato)	<i>neskaxe</i> (neskato)	(neskato)
III,22 <sup>129</sup>	<i>Errenteria</i> (Errendei)	<i>Errenteria</i> (Errendei)	<i>Errenteria</i> (Errendei)
III,23	<i>Bilbao</i> (Bilbau)	<i>Bilbao</i> (Bilbau)	<i>Bilbao</i> (Bilbau)
III,24,A <sup>130</sup>	(ilbeltza)	<i>ilbeltza</i>	<i>ilbeltza</i>
III,24,B	(otseille)	<i>otsailla</i> (otseilla)	<i>otxailla</i> (otseille)
III,24,Z	(marsube)	<i>marsu</i>	<i>martzoa</i> (marsube)
III,24,D	(apibille)	<i>apiribilla</i> (apibilla)	<i>aprila</i> (apibille)
III,24,E	(meyetza)	<i>maiyetza</i>	<i>mayatza</i> (meyetza)
III,24,F	(gaagarzarue)	<i>garagarilla, garagartzaro</i> (gaagarzarua)	<i>garagarrilla</i> (gaagarille)
III,24,G	(garille)	<i>garilla</i>	<i>uzta</i> (garille)
III,24,H	(aguztube)	<i>aguztu</i>	<i>aguztua</i> (aguztube)
III,24,I	(urrille)	<i>urrie</i> (urrilla)	<i>urria</i> (urrille)

<sup>118</sup> *n, l, r + z, s* ingurunean, ez da kontsonante igurzkaria afrikatzen Sakana erdialdean: *fanzan* (joan zen), *pensube* (pentsua), *ilzan* (hil zen), *fanberzan* (joan behar zen), *bizerzube, bersube* (bertsoa)...

<sup>119</sup> Ekainaren izena *ga(r)agarrillela* da esparru osoan, eta bukaeran edute-genitiboaren morfemaren bilakabidea gogoratu behar da: *-aren > \*-aen > -aan*.

<sup>120</sup> *Izkera* eta ez 'ele' da Sakana erdialdean erabiltzen den hitza.

<sup>121</sup> Elkarturik erabiltzen da hitz hau Sakana erdialdean eta modu bakar honetan: *eskerrikasko*.

<sup>122</sup> Ez da *-a* organikodun aldagaia erabiltzen esparru osoan: *Donosti, Donostie, Donostikue, Donostiti, Donostieño*...

<sup>123</sup> Ondorengo bilakabidea du: *gehiago > \*geiao > \*geyao > geyoo > geyo*.

<sup>124</sup> Horrela du jasorik R. Carasatorrek (1993, 353): "*Zaindu: cuidar, guardar (zaittu)*". Hala ere, askoz gehiago entzuten da esparru osoan, Etxarriko emaitzan aipatu dudana burutzapena, *kasuein < kasu egin*.

<sup>125</sup> Lehenago aipatzen nuen *-ind-* taldearen bustidura kasua izango genuke hau ere: *agindu > \*aindu > ainddu*.

<sup>126</sup> 'Sacar a la luz de la oscuridad' galdetu zen, eta Sakana erdialdean ez da erabiltzen hor jaso den *argitara + tu* burutzapena, *argie atia* (argira atera) baizik. Bestalde, *illunpe* izango genuke 'oscuridad' adierazteko hitzik egokiena.

<sup>127</sup> Hauxe da Sakana erdialdean *-a* organikoaren galera erakusten duen hitzetariko bat.

<sup>128</sup> Ez da gure esparruan *ez neskatxa, ez neskatila* erabiltzen, *neskato* edo *neskixe/a* baizik, baina bigarren burutzapen honek beste zentzua du, 'andereino'-rena hain zuzen.

<sup>129</sup> Galdera honetako izen nagusi honen kasuan *-a* organikorik gabeko burutzapena erabiltzen da, eta sudurkariaren ondoren hortzetako herskari ahostuna: *Errendei, Errendeiko, Errendeire*... Hurrengoaren kasuan, diptongaturik ematen da gatzelerako burutzapena: *Bilbau, Bilbaure, Bilbauti, Bilbauko*...

<sup>130</sup> Hauxek ditugu Sakana erdialdeko herrietan hilabeteen izenak.

III,24,L	(lasteille)	<i>lastailla</i> (lasteilla)	<i>lastailla</i> (lasteille)
III,24,M	(azarue)	<i>azaroa</i> (azarua)	<i>azaroa</i> (azarue)
III,24,N	(abendube)	<i>abendua</i> (abenduba)	<i>abendua</i> (abendube)
III,25 <sup>131</sup>	<i>gosaiye</i>	<i>gosari</i> (gosaiya)	<i>gosari</i> (gosaiye)
III,26	<i>gosaldu</i>	<i>gosaldu</i>	<i>gosaldu</i>
III,27	<i>Jesus</i>	<i>Jesus</i>	<i>Jesus</i>
III,28 <sup>132</sup>	<i>Mari(a)</i> (Marie)	<i>Maria</i>	<i>Maria</i> (Marie)
III,29	<i>Gabriel</i>	<i>Gabriel</i>	<i>Gabriel</i>
III,30,a) <sup>133</sup>	<i>ardantegi</i> (ardotei)	<i>arakindegi</i> *	
III,30,b) <sup>134</sup>	<i>mintegi</i> (munttei)	<i>mintegi</i> (minttei)	<i>mintegi</i> (minttei)
III,31	<i>isiltasun</i> (ixiltasun)	<i>isiltasun</i> (ixiltasun)	<i>isiltasun</i> (ixiltasun)
III,32,a)	<i>biguntasun</i>	<i>biguntasun</i>	<i>biguntasun</i>
III,32,b)	<i>zuzentasun</i>	<i>zuzentasun</i>	<i>zuzentasun</i>
III,33,A-B <sup>135</sup>	(ilzalie)	(ilzalia)	(ilzalie)
III,34,A	<i>bide zabala</i>	<i>bide zabala</i>	<i>bide zabala</i>
III,34,B <sup>136</sup>	<i>bide-zorra</i> *	<i>zor du bidea</i> *	<i>bide-zorra</i> *
III,34,Z <sup>137</sup>	<i>bideintzale</i> (bideinzale)	(bideinzale)	<i>bidezai</i> (bideinzale)
III,35,a)	<i>ilkor</i>	(ilkor)	(ilkor)
III,35,b)	<i>igarangor</i> *		
III,36,a) <sup>138</sup>	<i>Nafarrutik</i> (Nafarruti)	<i>Nafarruti</i>	<i>Naparrotik</i> (Nafarruti)
III,36,b)	<i>Naparrara</i> (Nafarrue)	<i>Nafarrura</i>	<i>Naparrora</i> (Nafarrue)
III,37	<i>napar(tar)</i>	<i>napartarra</i>	<i>napartar</i>
III,38	<i>Aitxe santube</i> (Aitte)	<i>Aita santua</i> (Aitta santuba)	<i>Aita santua</i> (Aitte santube)
III,39,A <sup>139</sup>	<i>astelen</i>	<i>astelen</i>	<i>astelen</i>
III,39,B	<i>astearte</i> (astierite)	<i>astearte</i> (astierite)	<i>astearte</i> (astierite)
III,39,Z	<i>asteazken</i> (astizken)	<i>asteazken</i> (astizken)	<i>asteazken</i> (astizken)
III,39,D	<i>ostegun</i>	<i>ostegun</i>	<i>ostegun</i>
III,39,E	<i>ostiele</i> (ostiele)	<i>ostinale</i> (ostiele)	<i>ortzilare</i> (ostiele)
III,39,F	<i>launbeta</i>	<i>larunbat</i> (launbeta)	<i>larunbat</i> (launbeta)
III,39,G	<i>iyendie</i>	<i>igande</i> (iyendia)	<i>igande</i> (iyendie)
III,40,a)	(aste santube)	(aste santuba)	(aste santube)
III,40,b)	(astelen santube)	(astelen santuba)	(astelen santube)
III,40,c)	(astierite santube)	(astierite santuba)	(astierite santube)
III,40,d)	(astizken santube)	(astizken santuba)	(astizken santube)
III,40,e)	(ostegun santube)	(ostegun santuba)	(ostegun santube)
III,40,f)	(ostiele santube)	(ostiele santuba)	(ostiele santube)
III,40,g)	(launbeta santube)	(launbeta santuba)	(launbeta santube)

<sup>131</sup> Bokal arteko dardarkari xamurraren galera jasaten du.

<sup>132</sup> Asimilazio aurrerakaria Etxarri eta Uhartan. Uharteko dotrinan ere horrela agertzen da: “*Ave Marie gracias betie ...*” “*Santa Marie Jangoycoaren ama ...*” (BOE, 1995, 603), “*O dulce Virgine Marie!*” (BOE, 1995, 604).

<sup>133</sup> Ez da *ardandegi* hitza erabiltzen, eta Arbizuko erantzunari asteriskoa jarri diogu ez datorrelako bat galdetutakoarekin, *ardandegi/ardantegi*.

<sup>134</sup> Hortzetako herskari ahoskabea palatalizatu egiten da, eta horrek *i* bokalaren presentzia erakusten du aurreko silaban, beraz badirudi *muin* + *-tegi* izan daitekeela bere bilakabidea, beste kasu batzuetan ere *-int-* taldea palatalizatzen baita: *pintterdi*, *pintto...* Sakana erdialdean, batez ere, basoko landare haztegia bezala erabiltzen da.

<sup>135</sup> Ez daude erantzunak, baina gure esparruan horrela erabiltzen da, l-ren ondorengo igurzkariaren alde neutralizaturik.

<sup>136</sup> Ez da hemen jasotako burutzapenik erabiltzen esparru osoan, eta galdetutakoaren erantzuna, *'bidie/-a ibiltzeko aukera'* izan daiteke, *ibilli* aditza ‘erabili’-ren zentzuan ere erabiltzen baita.

<sup>137</sup> *l*, *n*, *r* + *z* ingurunean ez da afrikatuaren aldeko neutralizaziorik suertatzen Sakana erdialdean.

<sup>138</sup> *p/f*txandaketari dagokionez, bigarrenaren alde neutralizatzen da gehienetan, salbuespenak ere badirelarik: *festa*, *fago*, *Nafarru*, *afaldu*, *farra...*

<sup>139</sup> Astegunak izen berberak erabiltzen dituzte Sakana erdialdean, galdera hauetan ikus daitekeen moduan.

III,41 <sup>140</sup>	(to, no)	(to, no)	(to, no)	
III,43	<i>agur ein</i> (saludetu)	<i>diosala egin</i> (saludetu)	<i>saludatu</i> (saludetu)	
III,44	<i>agur ein, despeditu</i> (despeditu)		<i>despeditu</i>	<i>despeditu</i> (despeditu)
III,45 <sup>141</sup>	<i>gogoratu</i> (goguatu)	<i>gogoratu</i> (goguatu)	<i>gogoratu</i> (goguatu)	
III,46	<i>gurutze</i> (guutze)	<i>gurutze</i> (guutze)	<i>gurutze</i> (guutze)	
III,47	(grife, gogo biziye)	<i>grina</i>	<i>grina</i> (grife)	
III,48,a)	<i>Kelementa</i> (Klemente)	<i>Kelemente</i> (Klemente)	(Klemente)	
III,48,b)	<i>Blas</i>	<i>Blas</i>	<i>Blas</i>	
III,48,c)	<i>Klara</i>	<i>Klara</i>	<i>Klara</i>	
III,49	<i>gu alde</i>	<i>gure alde</i> (gui alde)	<i>gure alde</i> (gu alde)	
III,50,a) <sup>142</sup>	<i>jauna</i> (jaune)	<i>jauna</i>	<i>jauna</i> (jaune)	
III,50,b) <sup>143</sup>	<i>ken ortik</i> (jendu orti)	<i>ken ortik</i> (jendu orti)	(jendu orti)	
III,51 <sup>144</sup>	<i>yatia</i>	<i>edatera</i> (aatia)	<i>edatera</i> (eatia)	
III,52	<i>zeitzez</i> (zetzez)	<i>zaitte</i>	<i>zaitte</i>	
III,53	<i>Afrika</i>	<i>Afrika</i>	<i>Afrika</i>	
III,54 <sup>145</sup>	<i>jarri</i>	<i>jarri</i>	<i>jarri</i>	
III,55 <sup>146</sup>	<i>ezer</i> (ezeez)	<i>ezer</i> (ezeez)	<i>deus</i> (ezeez)	
III,56	<i>lege</i>	<i>lege</i>	<i>lege</i>	
III,57	<i>aixune</i> (aittune)	<i>aittun</i>	<i>attun</i>	
III,58 <sup>147</sup>	<i>jai</i>	<i>jagi</i> (jai)	<i>jeki</i> (jai)	<i>jegi</i> (jai) (Arr)
III,59 <sup>148</sup>	<i>gizonik neiko, gizonik asko</i> (gizon neiko, gizona franko)	<i>gizona naikoa, gizona franko</i> (gizon neiko)	<i>gizonik aski</i> (gizon aski), <i>gizona naikoa</i> (neiko) <i>gizona franko</i>	<i>naikoa gizon</i> (neiko gizon) (Arr)
III,61	<i>betilun, ilun, (triste)</i>	<i>ilun, (triste)</i>	<i>ilun, (triste)</i>	
III,62	<i>erregutu</i>	<i>erregutu</i>	<i>erregutu</i>	
III,63,A <sup>149</sup>	<i>mariposa</i> (matxita)	<i>atxiyamatxi</i>	<i>mariposa</i>	<i>atximixi</i> (Arr)
III,63,B <sup>150</sup>	<i>almimorue</i> (amimorue)	<i>almimora</i> (amimora)	<i>irmiarmario</i> (irmiarma)	<i>amoma</i> (Lak), <i>irmiarmau</i> (imermau) (Arr)
III,63,Z	(iñerexagube)	<i>Inarasagu</i> (iñerexagu)	<i>saguxar, gauñare</i> (iñerexagu)	

<sup>140</sup> *to* eta *no* galdetzen ziren honetan, eta horrelaxe erabiltzen dira esparru osoan hain zuzen, hitanoaren erreferentzia moduan, lehena gizakiari zuzendua eta bigarrena emakumeari.

<sup>141</sup> Ondorengoa da izan duen bilakabidea: *gogoratu* > *goguatu* (bokal arteko dardarkariaren galera) > *goguatu* (diptongoazioa). Hurrengoan ere, galera berbera falta zaio jasotako burutzapenari.

<sup>142</sup> ‘Uharteko dotrina’-n ere horrela ageri zaigu: “*Gurutze Sanduberen sineliegati gure etsayetati libragachazu gure Juane et Jangoycoa*” (BOE, 1995, 602), “*Ave Marie gracias betie Juane da zurequin...*” (BOE, 1995, 603), “*Errespondacen dut. Bai, Jaune, Jaungoycoaren gracias*” (BOE, 1995, 605).

<sup>143</sup> Ez da esparru osoan erabiltzen hitz honetan belare herskari ahoskabea daraman burutzapena, ahostuna edota belare igurzkarri ahoskabeduna baizik: *gendu/jendu* (kendu).

<sup>144</sup> Gogoratu lehenago esaten nuena hasierako *e-* eta kontsonante erokorraz osaturiko hitzen burutzapenei dagokienean. Hiru burutzapen desberdin ditugu Sakana erdialdean: *yan – aan – ean* (edan), lehena Etxarri, Lizarraga eta Lakuntzan; bigarrena, Arbizu, Dorrau eta Unanun; eta hirugarrena, Arruazu eta Uhartan.

<sup>145</sup> Ez da esparru guztian *eseri* erabiltzen, eta bere orde *jarri* ageri zaigu, esanahi gehiago ere baiduelarik, *kokatu* edo *ipini*-rena esate baterako.

<sup>146</sup> ‘Nada’ zen galdetutakoa eta, beraz, ‘ez’ partikula falta zaio jasotako burutzapenari.

<sup>147</sup> *-gi-z* bukatutako hitzen bilakabidea jarraitu du hitz honek ere: *jagi* > *jai* (bokal arteko herskariaren galera). Bestalde, aipagarria litzateke hemen jasotzea *jai* hitzak, aldiz, diptongoaren itxiera jasaten duela: *jai* > *jei* (jai).

<sup>148</sup> *Aski* soilik Uhartan erabiltzen da Sakana erdialdean, eta bestela, oso erabiliak dira gainerako zenbatzaile zehaztugabeak: *asko, franko, neiko, barratu artio, izugerr...*

<sup>149</sup> ‘mariposa’ hitza bera ere dagoeneko oso zabaldua dugu herri gehienetan, eta baita ‘tximeleta’ ere. Hala ere, *atxiyamatxiya* erabili da betidanik Arbizun, eta Etxarrin, udako gauetan argiaren inguruan dabilzan tximeleta txikiei *matxita* esaten zaie, eta baita *pitxita* ere, ondorengo esarak testigatzen duen moduan: *Pitxita, pitxita, bota al dezu uzkerri ipurdiye itxita?*

<sup>150</sup> *amimorol/amimora* Etxarri eta Arbizun, eta *irmiarmal/irmiarmau* Uhartan eta Arruazun erabiltzen dira. Lakuntzako *amoma*-k ez du irmiarma adierazten, irmiarma-sarea baizik, eta horrela erabiltzen da esparru osoan.

III,63,D	(zapoziyela)	<i>zapiyelberde</i> (zapittela)	<i>iyel</i>	<i>zapielxter</i> (Lak)
III,63,E <sup>151</sup>	<i>sapue</i> (kunkune)	<i>kunkun</i>	<i>zapo</i> (kunkun)	<i>zapielkunkun</i> (Lak)
III,64 <sup>152</sup>	<i>Frantzia</i> (Frantzia)	<i>Frantzia</i> (Frantzia)	<i>Frantzia</i> (Frantzia)	
III,65	<i>frantzes</i> (frantesa)	<i>frantzes</i> (frantesa)	<i>frantzes</i> (frantesa)	
III,67	( <i>Lapurdi</i> ), <i>laburdi</i>	(Lapurdi)	(Lapurdi)	
III,68	<i>lapurtarrak</i> , <i>laburditarrak</i> (lapurditarrak)			

Irañetako ia emaitza guztiak ere jasoak daude EI-n, hasieran esaten nuen moduan, eta harritzekoa bada ere, esan daiteke era egokiagoan islatzen dutela, ez soilik bertako hizkera, baizik eta Etxarri eta Uharteko hizkerak berak ere bai. Eta esaten dudan hauxe, Irañetako emaitzetatik hartutako hurrengo zerrendan ederki asko ziurta daiteke: *bier* (behar), *luzie* (luzea), *egiye* (egia), *iyesi* (ihesi), *iyo* (eho), *zille* (zila), *zazpiñe* (zazpina), *ixildu* (isildu), *balitze* (balitz), *litzeke*, *izen* (izan), *zorris* (zorriz), *bildur* (beldur), *utsa* (ura), *eskube* (eskua), *eskuben* (eskuan), *beres* (berez), *maistrube* (maistrua), *aite* (aita), *ereitten* (ereiten), *lizer* (lizar), *soñeko* (soineko), *loittu* (lohitu), *laurek* (lauak), *lautaneun* (larehun), *auri* (euri), *eskuten* (eskuetan), *erraiye* (erraia), *loye* (lohia), *gaurti* (gaurtik), *lendi* (lehendik), *noizti* (noiztik), *orduti* (ordutik), *txikitati* (txikitatik), *aspalditi* (aspalditik), *gaurrarte*, *etxeti* (etxetik), *amaana* (amarena), *senarraana* (senarrarena), *amaandako* (amarentzat), *Irundi* (Irundik), *emendi* (hemendik), *Madrildi* (Madrildik), *Eibarti* (Eibartik), *Baraibarti* (Baraibartik), *gizonai* (gizonari), *nun* (non), *nok* (nork), *baaki* (badaki), *balaki* (baleki), *ezpalaki* (ez baleki), *eyaiz* (ez haiz), *dakit* (zait), *dazkit* (zaizkit), *auskera* (euskara), *auskelerri*, *aixkide* (adiskide), *guzi* (guzti), *Donostiko* (Donostiako), *geyo* (gehiago), *leze* (leize), *bizitze* (bizitza), *ilbeltza* (urtarrila), *otsail*, *martxo*, *april*, *maietza*, *garagartzaro*, *garilla*, *agoztu*, *urrie*, *lastaille*, *azaro*, *abendu*, *xarri* (eseri), *aittun* (aitona), *irmiarmau* (armiarma), *kunkun* (apo),...

Bestalde, bereziki aipagarriak iruditzen zaizkit herri honetako emaitzen artean agertzen diren *ortzegun* (ostegun) eta *ortzilere* (ostirala), honek erakusten baitigu justu Sakana erdialdearen ekialdean (Uhart-Arakilen ondorengo herria dugu Irañeta ekialdetik) hasten dela errotazismoa agertzen.

## BIBLIOGRAFIA

- ARAKAMA IMAZ, Jose Maria, *Uhart-Arakilgo Dotrina*, ASJU-ren gehigarriak 28-2, 1994.  
 ECHAIDE, A. M., *Erizkizundi Irukoitza*, Iker 3, 1984.  
 HUALDE, José Ignacio, *Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarriak*, Uztaro 18, 49-60, 1996.  
 KARASATORRE, Rafael, *Barranca-Burunda*, 1993.  
 KARASATORRE, R. et alii, *Etxarri-Aranatzko euskara eta Arañaz elkarteko hiztegia*, Altaffaylla, 1991.  
 MITXELENA, Koldo, *De dialectología vasca*, FLV 58, 1991.  
 MITXELENA, Koldo, *Fonética Histórica Vasca*, ASJU-ren gehigarriak, 1985.  
 MITXELENA, Koldo, *Orotariko euskal hiztegia*.  
 SOLÍS, Gregoria, *Lizarragako euskararen azterketa*, FLV 62, 95-124, 1993.  
 ZUAZO, Koldo, *Burundako hizkera*, Asju-ren gehigarriak, 28, 297-364, 1994.

<sup>151</sup> *Kunkun* dugu ‘apo’-aren ordaina Sakana erdialdean, *zapo* intsektua adierazteko erabiltzen delarik.

<sup>152</sup> *N + z > nz: frantzes*, *Konzezio* (Etxarriko ermita baten izena, ‘Concepción’), *kanzonzillo*...

## LABURPENA

Artikulu honetan, mende honen hasieran Azkuek egokitutako Erizkizundi Irukoitza galdetegiaren emaitzak aztertu dira goitik behera, eta Sakana erdialdeko herrietakoak izan dira kontuan bereziki (Etxarri-Aranatz, Arbizu eta Uhartekoak gehien bat, ezen iritsi zaizkigun Arruazu eta Lakuntzakoak oso urriak baitira), egun herri hauetan erabiltzen den hizkerarekin bat datozen ala ez egiaztatuz, modu honetan aipatu galdetegiaren beraren eta haren emaitzen balio dialektologikoa zehazten ahalegindu naizelarik, Mitxelena (1991,183) zioena, galdetutako burutzapenen balio urria zenbait kasutan eta argitaratutako datuen era desegokia, egiaztatzen delarik. Sakana erdialdetik ekialdera dagoen Irañetako emaitzak ere aztertu ditut, ondorio bitxia atera ahal izan dudalarik, erantzun guztietan ez bada ere, askotan behintzat, badirudi era egokiagoan atxekitzen direla ez soilik bertako hizkerara, baizik eta beste hiru herrietakora ere bai.

## RESUMEN

En el presente artículo se han estudiado de forma pormenorizada las respuestas que se recogieron a principios de siglo en el cuestionario preparado por Azkue, y más concretamente se han tenido en cuenta las de los pueblos de la Barranca (Etxarri, Arbizu y Uharte fundamentalmente, puesto que las respuestas que se han conservado de Lakuntza y Arruazu son muy escasas), confirmando el nivel de afinidad que presentan para con el habla actual de dichas localidades, de modo que se ha podido comprobar lo que Mitxelena (1991, 183) ya nos anticipaba, el escaso valor dialectológico de algunas de las cuestiones planteadas y la imperfecta publicación de los datos recogidos. Además, también se ha podido verificar con relativo asombro, que las realizaciones de Irañeta, localidad situada al este de la Barranca, son más coincidentes con el habla no sólo de dicha localidad, sino incluso con la de las mencionadas tres restantes.

## RÉSUMÉ

Dans l'article ci-présent, ont été étudiées de manière détaillée les réponses qui furent recueillies au début du XX<sup>e</sup> siècle dans le questionnaire préparé par Azkue, et on a plus concrètement tenu compte de celles des villages de la Barranca (Etxarri, Arbizu et Uharte fondamentalement, étant donné qu'il n'existe que très peu de réponses de Lakuntza et d'Arruazu ayant été conservées), confirmant le degré d'affinité qu'elles contiennent par rapport au parlé actuel des dites localités, de telle manière que nous avons pu vérifier ce de Mitxelena (1991, 183) nous avançait déjà, quant au peu de valeur dialectologique de certaines des questions posées et la publication imparfaite des données recueillies. De plus, on a aussi pu vérifier avec un étonnement relatif, que les réalisations d'Irañeta, localité située à l'est de la Barranca, coïncident plus avec le parlé, non seulement de cette localité, mais même avec celui des trois autres localités mentionnées.

## ABSTRACT

This article offers a detailed study of the answers gathered using the questionnaire drafted by Azkue at the beginning of the century and centres its attention more specifically on the responses from the villages in the Barranca area (Etxarri, Arbizu and Uharte above all, given the fact that the answers remaining from Lakuntza and Arruazu are somewhat scarce). The study confirms in so doing the high degree of affinity with the language spoken now in these places. In this way, it is possible to observe what Mitxelena foresaw (1991, 183): the scanty dialectological value of some of the questions raised and the imperfect reproduction of the data collected. It is also possible to verify, with somewhat relative dismay, that the data from Irañeta, a village located at the eastern end of the Barranca, not only coincides greatly with the language spoken there, but with those of the other three mentioned as well.